

# uk

153. zenbakia / 2009ko martxoaren 16a



# æk korrika KULTURALA PROGRAMAZIOA



Martxoak 1	Hondarribia	Hondartza kiroldegia	18:00	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Martxoak 6	Ondarroa	Kafe Antzokia	18:30	Abxikistan (estrenaldia)
Martxoak 6	Bilbo	Bilborock aretoa	20:00	Erregea eta bufoia
Martxoak 6	Bergara	Zabalotegi aretoa	22:30	Kanpaiak jo bitartean
Martxoak 7	Donostia	Doka Kafe Antzokia	21:00	Mirande Kabareta
Martxoak 10	Santurtzi	Kresala aretoa	20:00	EHko 20 sekretu txiki
Martxoak 12	Tutera	Castel Ruiz kultur etxea	19:30	Erregea eta bufoia
Martxoak 13	Gasteiz	El Jardín de Falerina kafetegia	20:30	Mirande Kabareta
Martxoak 14	Donostia	Antiguako frontoia	21:00	Ibañeta
Martxoak 14	Igorre	Lasarte aretoa	21:00	Mirande Kabareta
Martxoak 14	Bera	Kultur etxea	22:00	Kanpaiak jo bitartean
Martxoak 15	Elizondo	Lur dantzalekua	17:00	Abxikistan
Martxoak 15	Orereta	Niessen aretoa	18:00	Anitzak Hitzak (estrenaldia)
Martxoak 17	Iruñea	San Fermin peña	20:30	EHko 20 sekretu txiki
Martxoak 21	Zizur	Pilotalekua	22:00	Betagarri
Martxoak 22	Miarritze	Plaza Berri	20:30	Ibañeta
Martxoak 25	Mutiloa	Kultur etxea	18:00	Karrika Korri
Martxoak 26	Tutera	(Korrika 16ren hasiera)		Soka (Kukai dantza taldea)
Martxoak 26	Tutera	(Korrika 16ren hasiera)		Abxikistan
Martxoak 26	Amurrio	Amurrio antzokia	19:30	Erregea eta bufoia
Martxoak 27	Galdakao	Torrezabal kultur etxea	17:30/19:30	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Martxoak 28	Durango	Plateruena	22:00	Anitzak Hitzak
Martxoak 28	Altsasu	Iortia kultur gunea	20:30	Mirande Kabareta
Martxoak 29	Baigorri	Biletze zinegela	18:30	Erregea eta bufoia
Apirilak 3	Bilbo	Bilborock aretoa	22:00	Anitzak Hitzak
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Soka (Kukai dantza taldea)
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Abxikistan
Apirilak 5	Gasteiz	(Korrika 16ren bukaera)		Betagarri




Lizarrak martxoak 6	Donostia martxoak 7	Gasteiz martxoak 12
Sestao martxoak 13	Garralda martxoak 14	Orereta martxoak 15
Munitibar martxoak 20	Zizur martxoak 21	Arratia martxoak 22

KORRIKA EGUNETAN
Tutera martxoak 26
Iruñea martxoak 28
Baiona martxoak 29
Bilbo apirilak 3
Gasteiz apirilak 5

www.korrika.org

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea  
 HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37  
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru  
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarrinaga, Maitane Nerekan, Zuberora Iturburu  
 FOTOGRAFIA: Asier Menteaka  
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.  
 MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel  
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)  
 KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta  
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Aldapa auzoko etxeak.
- LEHEN ETA ORAIN. Altzaga, Erandio.
- TALAIJA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Bego Ezkerra.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Getxo Antzokiaren azken egunak.
- ARGAZKIA. Gran Cinema.
- BERBETAN. Jose Ignacio Royo Prieto.
- FOTOGRAFIA. Philip Kwame Apagya.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Animabasauri.
- MUSIKA. Zaramaren itzulera. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Ipuin laburren lehiaketa. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Hitzaldiak Getxon.
- ELKARRIZKETA. Esther Zorrozueta.

### AMAITZEKO

- NORA JOAN. Jan eta jolas, Getxo.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Astrabuduko Atzapre Urkiolan 1957, Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Irati Anda.

Azala: Philip Kwame Apagya



30 Jose Ignacio Royo Prieto Txose

### Berbetan

Derrigorrezko soldadutzagaz bukatu zuten intsumisoek. Orain 20 urte aurkeztu ziren lehenak.



11 Bego Ezkerra



54 Irati Anda

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
 Bizkerre, s/n -ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

**Leihatila**

&gt; Pedro Garcia Larragan

**Pirro**

Antzinako Greziako erregea zen. Persiako jaun handi baten aurkako guda irabazi zuen. Baina horren justu, eta horren kaltetua gelditu zen bere ejerzitoa, non jeneralek esan omen zioten: honako beste garaipen bat... eta pikutara! Beldur ziren urte batzuetara Persiatik etorritako bigarren erasoari eutsi ahal izango zioten. Jakin bazekiten, ez zutela denbora nahiko euren armada berreraikitzeke. Orduan ikasi zuen Pirrok, 'ez irabaztea' ren garrantzia, prezioa altuegia bada, behinik behin. Greziako tragediak (edo kondairak) atzera utzita, Patxi Lopezen 'garaipena' Pirrorena bezalakoa ez ote den izango, galdetzen diot neure buruari. Eta ez dakit errealitatea gogoagaz okertzen ari den. PSEk ez ditu hauteskundeak irabazi, nahiz eta horrelako irudia eman, eta euskal gizartearen gehiengo zabalak (%60tik gertu) abertzalea izaten jarraitzen du. Agian Pirro erregeari lez gertatuko zaio Patxi Lopezi. Kontua da, PSEren barruan ez dudala nik ikusten jeneral zintzorik, Patxi 'garaipen pirrikoaren' arriskuaz ohartaraziko duenik, alegia.

**gu geu****Dana da destrukzioa**

“Azken boladan, dena da destrukzioa UKn”. Gure lankide baten berbak dira aurreko horiek. Azken boladan, Uribe Kostako (batez ere Getxoko) eraikin garrantzitsu askoren azken egunak ekarri ditugu orrialdeotara: Mataderoa, Gurea Zinemaren argazki zaharrak... Ale honetako albumean, Getxo Antzokiko argazkiak ikusiko dituzu; azken kontzertuetakoak eta makinak sartu zirenekoak. Horregaz batera, erdiko bi orrietarako, Gran Cinemaren irudi bat aukeratu dugu. Eraikinek historia idazten dute sarri edo, hobe esanda, herrietako historiaren parte garrantzitsua dira. Getxoko antzoki nagusiak, berea idatzi du dagoeneko. Urte batzuen buruan, beste eraikin handiago eta modernoago batek hartuko du bere lekua, eta horrek ere, bere historia idatziko du. Dana dan, eraikinak (eta historia) ez dira ezer, horiek erabili eta beteko dituzten herritarrek barik; pertsonok ematen diegu bizia porlanezko, zein egurrezko hornei.

“Argazki suntsitzaileak” batera, inguruko egitasmo eraikitzaileak ere ekarri ditugu. Ramiro Pinilla getxoztarrak eta Esther Zorrozuera berangoztarrak, bere azken nobelen barri eman digute. Philip Kwame Apagya artistaren bilduma ironikoa ere ekarri dizugu. Eta agendan, zita garrantzitsua: “Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira”.

**UK-ko lantaldea****Iritzia**

**Jaioterrira bisitan joan barri da Fakundo Aznarez argentinarra. Lagunakaz eta senideakaz egoteaz gain, hausnarketarako aukera izan du.**

**Han eta hemen!**

Orain dela gutxi Argentinatik itzuli ginen familiagaz, gure urtebeteko semeak aitaren sorterrira ezagutzeaz gain, Atlantikoaren bestaldeko senide eta lagunak ezagutzeko aukera izan zuen. Neuk hiru urte neramatzan joan gabe eta horrelako bidaiak “kontzentratuak” dira erabat. Distantziak

**«Azken batean gure bizitokia zein den aukeratu behar dugu»**

dako momentuak, ordenagailuko artxiboak balira bezala, urte honetan zehar apurka-apurka “deskonprimitu” eta gozatuz joateko. Horrela izaten da “etorkin baten egunerokotasuna”, leku bi, baina batean sustraiak finkatu, errealitate ezberdin bi, baina batean buru-belarri sartuta. Zailena, gauden lekuan burua izatea dela, baina azken batean aukeratu behar dugu zein den gure bizitokia (Aristarain zinemagileak ezaguna egin zuen

gaindituz, senideen urte osoko maitasuna, aholkuak, pazientzia eta sentimenduak ekarri ditugu Euskal Herrira, ikusitako eta bizi izandako

esaldia: “nuestro lugar en el mundo”). Eta nik aspalditik egin nuen hautua, Euskal Herria zela familia eraikitzeke lekua, euskara izango zela bidea eta odola herria ezagutzeko eta maitatzeko.

Tamalez, hemen, etorkin guztiek ez dute aukera berdina eta “paperdun eta zuria” izanik, erabat pribilegiatua naizela aitortu behar dut. Hainbat lagunek urte asko baitaroztate senideak ikusi barik, paperen edo bidaiatzeko behar den diru faltagatik.

Ipar hemisferioko negu gorri eta euritsu hauetatik, munduko hegoaldeko udako sargorira eskala barik. Hemengo uholde eta ekaitzetatik, hango lehorre gogorrera. Argi dago geure munduari egiten diogun kaltea gero eta nabariago dela, eta natura eta klimatologiaren umore aldaketak, hemendik aurrera gero eta biziagoak izango direla. Hala eta guztiz ere, krisi ekonomikoaren barruan, eguraldia baina, kaltegarriago dena sistema kapitalista dela zalantzarik ez daukat nik. Globala da krisia erabat, baina hegoaldeko herriek aspalditik pairatzen dute, guk, ordea, hemendik ikasi behar dugu “paranoia mediatiko eta finantziera” honegaz elkar bizitzen.

Hemen langabetuen kopurua handituz doa, han ez dago inolako laguntzarik langabetuentzat. Hemen gune komertzial erraldoietan “comida basura” erosten dute umeek eta han zaborretatik jaten du hainbatek. Hemen gerrikoa estutu eta han turismoa nabarmen jaisten da, eta aurreikuspenak are ilunagoak.

Baina botikak ez dira magikoak. Han irudimena askatzen da egoerari aurre egiteko, baita elkartasuna ere eta hori auzo eta herri txikietan argi geratzen da, dana banatzen baita, kolektibo sozialaren barruan, eta estatuak ez dauka eskua sartzerik. Nire ustez hori da irakasten digutena, subirotasun lokala eta antolakuntza herrikoia. Hemen ere une gogorren aurrean martxan jarri beharko genukeen errezeta.

**Fakundo Aznarez** (Kazetari argentinarra)

[irudia]



2008KO MARTXOA, ALGORTIA

**Erreak gainezka egiten duenean** / Algortako Aldapa auzoko bizilagunak promozio interesgarria bultzatzen ari dira. Argazkian ikus daitekeenez, jakuzi erraldoiak jarri dituzte salgai. Egongela eta sukaldia omen dute Aldapako jakuziek. Zoritxarrez, erlaxatu ordez, urdui jartzeko baino ez dute balio, eta horregatik, saldu guran dabilza. Zerura begira eman dituzte azken hilabeteak inguru horretako auzokideek. Eta ez pentsa Jainkoa gurtzen ibili direnik. Eurria eta erreka euren amesgaizto beldurgarriena bihurtu da; dirudienez, horrela jarraituko dute denbora batean behintzat. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

GEHITU KIROLERA EGITASMOAREN BARRUAN

# Hartu eta pasa!

## ENTRENAMENDUETAN EUSKARA

### HITZALDIAK

**KIROLARI GAZTEAK: NOLA ELIKATU?**  
**JOSEAN LEKUE.** Athletic Clubeko medikua  
KIROLARI COORDINATUA:  
**IRATI ANDA** (eskalatzailea)  
**Aurkezlea: XABIER USABIAGA** (ETBko aurkezlea)  
 Martxoaren 24a, asteartea, 19:30ean. Villamonteko Kultur Etxean. **DOAN**  
 Aldi bereko interpretazio zerbitzua egongo da.

**ESKOLA-KIROLA, LEHIATZEKO EDO JOLASTEKO?**  
**IZASKUN AZPILLAGA.**  
 Jarduera fisikoan eta kirol zientzietan lizentziaduna  
KIROLARI COORDINATUA:  
**Roberto Martinez "TIKO"** (Eibarreko jokalaria)  
**Aurkezlea: XABIER USABIAGA** (ETBko aurkezlea)  
 Martxoaren 25a, asteazkena, 19:30ean. Villamonteko Kultur Etxean. **DOAN**  
 Aldi bereko interpretazio zerbitzua egongo da.

**ENTRENAMENDUA KOIKILIREKIN**  
**KOIKILI LERTXUNDI** (Athleticoko jokalaria)  
**MIKEL ARAMAIO** (Athletic fundazioko entrenatzailea)  
 Martxoaren 26a, osteguna, 19:00etatik aurrera.  
 Boluako futbol zelaian. Zabalik nahi duenarentzat.



GETXO UDAL LEJURITEGA



ASERMENTOAGA

### Iraganez doa denbora\* beti / ALTZAGA, ERANDIO

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; argazkien albumetan



2008ko azaroa, Algorta (Getxo)

Testua: **Jone Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Ilun ikarak azken argia

"Mataderoa" algortarrantzat ez zen leku bat arrotza, nahiz (e)ta han inoiz ez nintzen egon, esateko ez naiz lotsa. Duela gutxi bota dutela laster zabaldu da hotsa, hiltegi bati ere iristen zaio, antza, heriotza.

Argazki hori hartu liteke metafora txiki legez: inguru hori "Mataderoa" da guztiontzako berez. Bota zutenez, dena beteta dago errautsez eta kez, baina izena ezetz erori eraikuntza bezain errez.

Lehen zinema bat bagenuen Amezti kaleko bueltan, baita Antzoki elegante bat San Nikolas plazan bertan; dena suntsitzen jarraitu ordez pentsa dezagun benetan, gure herria gorde baino lehen argazkien albumetan.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

## bertsolaritza &gt; Bertso Udalekuetan izen-ematea zabalik




Maiatzaren 5a arte egongo da zabalik Bertso Udalekuetan izena emateko epea

**Euskal Herriko** Bertsozale Elkaratek Bertso udalekuetarako izen-ematea zabaldu du. 9 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteek, zazpi udalekuetako batean parte hartu ahal izango dute. Maiatzaren 5a arte egongo da zabalik uztailean eta irailean egingo diren udalekuetan izena emateko epea. Txikienek, lau edo sei eguneko txanda bi egingo dituzte eta Irañetara (Nafarroa) edo Zuhatzara (Araba) joan ahal izango dira. 12 eta 15 urte bitarteko kasuan, hamar eguneko txandak egingo dituzte Muxikan (Bizkaia) edo Ligi-Athereinen (Zuberoa). Nagusientzat, udaleku bakarra egongo da Getarian (Gipuzkoa). Matrikula Bertsozale Elkarateko web gunean egin daiteke ([bertsozale.com/udalekuak2009](http://bertsozale.com/udalekuak2009)). Umeez gain, udalekuetarako begirale eta sukaldari bila ere ari dira. Argibide gehiago gura dituenak 943 694 129 telefonora dei dezake. ○

## lehiaketa &gt; Hegoak gay-lesbo-trans argazki lehiaketa martxan

Lanak posta elektronikoz bidali behar dira [info@hegoak.com](mailto:info@hegoak.com) helbidera

**Hegoak** gai, lesbiana, transexual eta bisexualen Euskal Herriko elkaratek, II. "Afrodita Saria" Argazki Lehiaketa antolatu du. Parte hartzen duten lanek, gay-lesbo-trans gaien alderdietako bat erakutsi behar dute edo, bestela, jarrera homofobikoak, lesbofobikoak edo transfobikoak gutxiestera jotzen duen mezua jaso behar dute. 18 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Lanak posta elektronikoz bidali behar dira [info@hegoak.com](mailto:info@hegoak.com) helbidera, 2009ko martxoaren 23tik apirilaren 30era. Hiru argazki aurkeztu beharko ditu parte hartzaileak. Irabazleak aukeratzeko, lehiaketako gaia ulertzea, sormena, originaltasuna, argazki tekniken maneia eta kalitate artistikoa hartuko dira kontuan. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 15ean jakinaraziko da [www.hegoak.com](http://www.hegoak.com) web gunean. ○



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

**Boluntzarreta**  
BBK 2095 0121 10 9102483676  
**sartu zure laguntza** gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / tel.: 94 491 13 37

**saiaszgetaria**  
HOTELA

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..harria      ...lehengo garaiak...      ...itsasoa

[www.saiaszgetaria.com](http://www.saiaszgetaria.com) / [info@saiaszgetaria.com](mailto:info@saiaszgetaria.com) / t. (+34) 943 140 143

**urduliz** > Basartena tabernak Film laburren II. Txapelketa antolatu du

Joan den urteko laburmetrai irabazlearen irudia

**Urdulizko** Basartena tabernak Film laburren II. Txapelketa antolatu du. Joan den urtean 114 lan aurkeztu ziren, horietako asko, maila handikoak. Aurten, Urdulizko Udalaren eta Kultur Etxearen laguntza izango dute Basartenakoek. Parte hartzeko, ez da adin mugarik izango; lan bi aurkeztu ahal izango dira gehienez eta DVD formatuan bidali beharko dira Elortza kalea 19, 48610 (Urduliz) helbidera apirilaren 30a baino lehen. Zine eta ikus entzunekoaren munduko jendeak osatutako epaimahaia izango da lehiatuko diren 12 lanak aukeratzeko arduratuko dena. Horiek, ekainaren 26 eta 27an erakutsiko dira Kultur Etxean eta Plentzia Telebistan. Ekainaren 27an, irabazlearen izena jakinaraziko da txapelketari amaiera emateko antolatuko duten jaian. Hiru sari emango dituzte, fikzio-labur onenari (600 euro), animazio lan onenari (400 euro) eta zine eskoletako ikasleentzako sari berezia (200 euro). ○

**barrika** > San Juan jaietarako kartel lehiaketa

Apirilaren 8a arte aurkeztu ahal dira lanak

**Lehenengo aldiz** San Juan jaiak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Barrikako Udalak. Lanak, euskarri zurrunean eta JPG formatuan aurkeztu behar dira Kultur Etxean apirilaren 8a baino lehen. "Barrika, Jon Deunaren Jaiak 2009" testua idatzita izan behar dute aurkeztutako lan guztiek; neurria, 30x40 zentimetrokoa izan behar da. Lanagaz batera, egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea, jaiotza data eta telefono zenbakia itxitako gutun azal batean aurkeztu behar dira. 500 euroko sari bakarra egongo da eta irabazlearen izena maiatzaren 8an jakinaraziko da, Barrikako Kultur Etxean (Udaletxea Bidea 2) egingo den sari banaketan. Aurkeztutako kartelak Kultur Etxean bertan eta udal web gunean ([www.barrika.net](http://www.barrika.net)) egongo dira ikusgai. ○



"80ko hamarkadan zabaldu genuen denda; ordura arte Villamonte plazan geneukan postua, kalean"

**Bego Ezkerra** > Algortako Etorbideko egunkari saltzailea

**Bizitza osoa** prentsari eskainia eta ez da kazetaria. 36ko gerra baino lehen hasi ziren Bego Ezkerraren aitite-amama egunkariak saltzen. Ondoren etorri ziren belaunaldiak lekukoa hartu zuten. Etxez-etxe, zein Algortako Etorbidea kaleko dendan banatzen dituzte egunkariak Begok eta bere ahizpak: "80ko hamarkadan zabaldu genuen denda; ordura arte Villamonte plazako postutxoan geunden, kalean. Hasieran, egunkari bi zeuden: Gaceta del Norte eta Correo. Astelehenetan ez zegoen egunkaririk, La hoja del lunes baino ez". Orain dela 70 urteko bezeroetako asko mantentzen ditu; zer gura duten jakiteko, ez du galdetu beharrik. Goizeko 4:30etan hasten da Ezkerraren lan eguna; ez da deskantsurako tarte handirik egoten. Urtean hiru egunetan besterik ez du jai hartzen: "Abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta Aste Santuko zapatuan. Azken hiru urteetan, oporrak hartu ahal izan ditut abuztuan". Ez du sekula egunkaria irakurtzen: "Nazkatuta nagoelako izango da agian". Teknologia berrien agerpenagaz, asko zaildu zaio beharra: "Gehiago saltzeko, egunkari guztiek dakarte opariren bat eta hori kontrolatzen ibili behar naiz". Ogibide gogorra da: "Ilobari ikasten jarrai dezala esaten diot, dendako beharra gogorregia dela". Erretiroa urrun ikusten du: "Ezin dut imajinatu ere egin zelan izango den; astebururako planak egiteko aukerarik ere ez daukat, zelan pentsatuko dut erretiroan?". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan** **Reprografía**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antigua Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •  
Kartelak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •  
ermarkaketak •



# lazko hondakinen birziklapena

**Getxoztarrek** joan den urtean **birziklatzeko 7 mila tona hondakin** baino gehiago batu zituzten; halere, udal arduradunen arabera **pila-bilketak behera** egin izana arriskutsua dateke

**Getxoko Udaleko Ingurumen Arloak** oraintsu eskaini ditu **2008an birziklatzera bidalitako hondakinen kopuruak**. Paper, beira, ontzi, aparailu elektriko (elektrotresna, telebista, ordenagailu etab.), ehun, pila, tamaina handiko eta obra-hondakinak kontuan hartuta **guztira 7000 tona hondakin baino gehiago batu ziren birziklatzeko**.

**Hondakinei** dagokienez, guztira, 35,6 milioi kg-tik gora batu ziren iaz, batez bestekoa eginez gero, urteko getxoztar bakoitzak 435 kilotik gora hondakin sortzen du, eguneko 1,2 kg. Hala, hondakin horietatik guztietatik udalerrian %21 birziklatzen da, hau da 7000 tona baino gehiago. Aurreko urteagaz (2007) alderatuz gero, iaz %20 hazi zen birziklatzera bidalitako materialen kopurua. Ingurumen Arlotik adierazi dutenez, hazkunde hori batez ere birziklatzera bidalitako tamaina handiko eta aparailu elektriko, zein beira lako materialen bilketari zor zaio.

Birziklatzera bidalitako hondakin-materialen gaikako kopurua hurrengoan izan zen: aparailu elektrikoak 38.080 kg (2007an baino %72 gehiago); 1.636.945 kg beira (%9,5 gehiago); 920.634 kg ontzi, 505.300 kg tamaina handikoena; 226.810 kg ehun; azken hiruren kopurua ere igo egin da. Bestalde, hurrengo gaien birziklapenak, gehiago ala gutxiago, baina behera egin dute, horiek izan dira: 3.278.820 kg paper (%0,48 gutxiago),



Pilak birziklatzeko 155 edukiontzi daude udalerrian

2.340 kilo fluoreszente (%2,5 gutxiago), 5.680 kg pila (%28 gutxiago).

Pilen birziklatzeko bilketak behera nabaria izan duela argi dago, eta horren harira, Ingurumen Arlotik erne egoteko gomendatu dute, "era honetako

**«35.600 tona hondakinetatik %21 birziklatzera bidali zen iaz, hau da, 7000 tona »**

materialen birziklapenak oso kutsakorrek diren osagaiak isurtzea saihesten duela. Gogoratu dutenez, udalerrian 155 pila edukiontzi daude, ikastetxeetatik eta saltokietatik sakabanatuta.

Azkenik, Udalak datuok eta beste batzuk batuko dituen triptikoa banatuko du etxetan, ikastetxeetan eta udal bulego-

tan. Bestelako datuen artean, esaterako, batutako materialari azkenean ematen zaien erabileraren gaineko azalpenak ere jasotzen ditu. ○

## Datu batzuk

- **Aparailu elektrikoak:** 38.080 kg
- **Beira:** 1.636.945 kg
- **Ontziak:** 920.634 kg
- **Tamaina handikoak:** 505.300 kg
- **Ehuna:** 226.810 kg
- **Papera:** 3.278.820 kg
- **Argi fluoreszenteak:** 2.340 kg
- **Pilak:** 5.680 kg
- **Hondakinak:** 35,6 milioi kilo
  - **biztanle/urteko:** 435 kg
  - **biztanle/eguneko:** 1,2 kg
- **Guztira:** 7000 tona hondakin, 2007an baino %20 gehiago

## Erromoko hirigintza

hobetzeko Udalak **6,2 milioi euro** bideratuko ditu



Metro plaza alboko aparkalekua ere egokituko dute

**Getxoko Udalak** Erromoko hainbat kaltetan espaloiak zabaldu eta zoladura barrizteko egitasmoa aurkeztu barri du. Getxoko alkate Imanol Landaren esanetan, egitasmo horrek "Erromok Getxoko beste auzo batzuek gozaten duten urbanismo kalitateagaz eta atseginez behin betiko bat egitea ekarriko du". Aipatutako egitasmoaren barruan sartzen diren hirigintza hobekuntzarako lanak ondorengoak dira: Ezekiel Agirre, Aurrezki Kutxa (oinezkoek izango dute lehentasuna), Kalamua eta Gobelondo (bitarte bat oinezkoentzako bakarrik izango da) kaleetako espaloiak zabaltzea (605.000 euro, Estatuko Funtsak finantzatuta), Metro plaza ondoko eremua aparkatzeko egokitzea eta saneamendu sareko estolderia nagusia (hodi biltzailea aldatuko dute; 1,3 milioi euro) zaharbarritzea. Proiektu hau auzo

horretarako hirigintza zaharbarritzeko planekoei batzen zaie; planaren barruko ekintzen artean daude, besteak beste: Errekagane kaleko erabarritzea (ia amaituta), Luis Lopez Osés kalea eta Errekagane parkea egokitzea lanak (hil honetan esleituko dituzte), Chavarri Zuazo parkeko lanak, eta Gabela kiroldegiko 270 aparkalekuak. Aipatutako jardueretara, Erromon egiten ari diren, eta egingo dituztenetara, denetara 6,2 milioi euro bideratuko du Udalak. Lanogatik aparkalekuak gutxituko direlakoan sor daitzkeen kexei aurreratuz, legegintzaldi honetan egindako hainbat ekimen gogora ekarri ostean, Landak jakinarazi du Leioako Udalak Pinuetan (La Boronita aldean) 400 aparkaleku egokituko dituela aurreikusten duela, eta egitasmo horretan Udal biek elkarlanean jardungo dutela. ○

## BEHIN BETIKO 2009RAKO AURREKONTUA: 100.394.712 EURO

Otsailaren 27an onartu zuten Udalbatzan, EAJ, PSE-EE eta EE alderdien aldeko botoakaz, eta PPren eta EB-Bren kontrakoakaz Getxoko Udaleko 2009rako aurrekontua: 100.394.712 eurokoa (iaz baino %3,37 gehiago). Udalak 18.412.368 euro (aurrekontuaren %18,34) gizarte politiketarako erabiliiko ditu; udalerriko garapen ekonomikorako 6.420.218 euro (kopuru handiena, 3.250.000 euro, ez-ohiko programarako izango da). "Udalerria hobetzeko" 15 milioi euro erabiliiko ditu -urte anitzeko kontu-sailakaz finantzatutako proiektu estrategikoak aparte-; erakunde autonomoei dagokienez, Andres Isasi Musika Eskolari 2.323.552 euro emango dizkio; Jesusen Bihotzeko udal egoitzari 5.270.168 euro; Getxo Kirolak erakundeari 5.468.560 euro eta Kultur Etxeari 6.999.064 euro. Getxoko Udalak 6 milioi euroko (aurrekontu osoaren %6) zorpetzea izango du, hurrengo urteetan ere mantenduko dena, neurri txikiagoan bada ere. Horrez gainera, auzokideekiko presio fiskala gutxitzeko neurriak ere hartu dituzte, besteak beste, hobariak eta tasak gutxitzea. Guztira 6 udal tasa murriztuko dira; zabor-bilketaren gaineko tasaren jaitsiera izango da nabarmenena, etxebizitzentzat %30 eta bulego-saltokientzat %35; bestalde, familia ugariarentzat estolderia, administrazio-agiriaren luzapena, Musika Eskolako zerbitzua, lokalak irekitzeko baimena, obra baimena eta abarren gaineko tasak ere jaitsiko dira.

## FADURAKO HOBETUNTZA TEKNIKORAKO ZENTROA ERABILI AHALKO DA

Eusko Jaularitzak eta Getxoko Udalak izenpetutako hitzarmenaren ondorioz, Getxo Kirolak-ek aukeratutakoek (batez ere udalerriko taldeek) HTZren instalazioak erabili ahal izango dituzte. Hasieran Getxo Saski taldearen senior kategoriako jokalariek izango dira bertan entrenatzen hasiko direnak. Gerora, beste kirolariak, zein klubek erabili ahal izango dituzte.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Ileta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA  
Tf. 94 491 12 71

**Raul Hernandez** > argazkilaria

“Erakusketaren jolasa da argazkiak egiten dizkiedala turista-argazkilariei”



Raul Hernandez

**Raul Hernandezek (Algorta, 1982) Arte Ederrak ikasi zuen EHU eta 2007an Bartzelonara abiatu zen GrisArt argakigintza eskolan ikasketak sakontzeko asmoz; geroztik han bizi da “momentuz hurrengo urtea ere hemen emango dut, eta aukera interesgarriren bat sortzen bada, agian gehiago lotuko naiz”. “My tourist colleagues” bakarka egiten duen lehenengo argazki erakusketa ikusgai egongo da hilaren 21a arte Villamonteko kultur etxean (Algorta).**

—Noiz hasi zinen argazkigintzan?

—Ikasketak amaitu eta hornidura enpresa batean ibili nintzen lanean. Bertan nik egiten nituen argazkiak, eta hortik sortu zen zerbait profesionalagoa egitearen beharra. Unibertsitatean pintura eta zeramika jorratu nituen, orain zeramikagaz jarraitzen dut, pintura apur bat baztertu dut. Argazkigintzarena lan kontuagatik izan zen, egia esan, oso gogoko ez nuen zerbait izan zen... Baina beti izan dudanez gogoko, pentsatu nuen zuku gehiago atera ahal niola; profesionalki zerbait egin ahal izateko, baita nire proiektuak garatzeko ere.

—Zer islatu gura duzu erakusketagaz?

—Orain dela ez asko egin dudana kontu baten inguruko erakusketa izango da, “Nire lagun (“lankide”) turistak” izenburua du, eta ideia hurrengo da: hemen, Bartzelonan turista piloa dabil, horren inguruko “erreportaje” lakoa egiteko gogoia izan nuen; turismo puntu beroenetara hurbildu naiz, adb.: La Rambla, Sagrada Familia, Plaça Catalunya etab. Erakusketaren jolasa da nik argazkilaria legez, argazkiak egiten dabilzan turistei argazkiak ateratzen dizkiedala, baina ez edozein turistari, turista-argazkilariei baino. Hori da erakusketaren alde

nagusia, 20 bat guztira. Horrez gainera, beste 8 argazki daude, erretratuak direnak, konketuagoak, hurbilagokoak. Horietan Ramblatik, Boqueria ingurutik, pasatzen den jendea agertzen da, horiek turistei kontrajartzea da nire asmoa, eurek Bartzelonako jendea dira, ez turistak. Hemen turisten kontua itzela da, gehiegikeria, erdigunean ez dago turisten masa saihesteko punturik! Denok gara noizbait turistak, nik ere bidaiatzea oso gogoko dut, baina “turista tipiko” hori batzuetan kantsagarria da. Hasieran “bilalariek” grazia egiten zidaten, lagunartekotzat nituen, denok halakoak

**«Erakusketaren azken zatia kale-erretratuak dira... Bartzelonako jendearenak»**

garelako noizbait, baina egunero-egunero jasatean... Erakusketaren ideia “laguntasun” horretatik dator eta, era berean, argazkigintzaren kontuak batzen gaituen horretatik “colleagues”, “lankidetasun” horretatik ere bai, horregaz jolastu gura nuen. Erakusketan ipiniko dudana beste gauza bat idatzi, triptiko antzeko bat da, turistei banatzen zaizkien horietakoa, bertan erakusketaren informazioa ematen da. Turisten “uniformearen” (“argazkilaria” txalekoa, txanoa, praka laburrak, galtzerdi luzeak etab.) argazkia ere ipiniko dut. Horrez gainera, turista “uniformea” bera ere ipiniko dut erakusgai, adierazi gura dudana da “mozorro” hori nik ere jantzi dudala, zelanbait argazkiak atera dizkiedan jendarte horren partaide bihurtzeko.

—Orain zerbait barria prestatzen zabilta?

—Azken aldian ateratzen nabilen argazki gehienak kale-erretratuak dira, gehienak zuri-beltzean. Agian erakusketaren azken zati hori orain egiten nabilenaren isla da, kontu barri horiei lotuago dago. ○

## Ramiro Pinillak

**Solo un muerto mas polizia-nobela**

umoretsua kaleratu du; hurrengoagaz hasi da



Ramiro Pinilla getxoztarra (Bilbo, 1923)

**Ramiro Pinilla** idazle getxoztarrak argitaratu barri duen *Solo un muerto mas* (Tusquets) polizia-nobela umoretsuagaz bere literatur ibilbidearen hastapenetera jo duela esan liteke, eta azken liburu honeguz orduko lanen arrakasta urriaren arantza kentzeko asmoa eta generoarekiko keinua egin gura duela.

Nobelako protagonista Sancho Bordaberrik liburudenda bat zabaltzea erabaki du gerraondoko Algortan. Bera nobelagilea da baina argitaletxeek bere lan guztiak bueltatzen dizkiote, eta berak itsaslabarretik behera jaurtitzeko ditu. Halakobatean, 1945 aldera, Arrigunagan 10 urte

lehenago gertatutako Altube bikien hilketaren barri izaten du, eta ikertzea erabakitzen du. Ikerlari bihurtuta Samuel Esparta ezizenagaz (*Sam Spade*-i gorazarre egin asmoz) “benetako istorioa” idazten hasten da, nobela-erreal deritzona. *Solo un muerto mas* intriga eta umore nobela bada ere, errealitatea kontatzeko eta idazteko moduz ere hausnarketa egiten du.

*Verdes valles, colinas rojas* trilogiaren ostean, 20 liburu baino gehiagoko zerrenda osatzera dator Esparta detektibearen inguruko liburua, eta Pinillak jakinarazi duenez, dagoeneko Espartaren beste emaldi bat idazten hasi da. ○

## CESARE PAVESEREN OMENEZKO POESIA ETA MUSIKA ERREZITALDIA

Orphenica Lyra taldeak *Trabajar Cansa* musika eta poesia errezitaldia eskainiko du Cesare Pavese gorazarre egiteko. Ekitaldia hilaren 27an izango da Algortako kultur etxean (Villamonte) arratsaldeko 19:00etan (sarrera doan).

## ERAKUSKETA AIPAGARRIAK ERROMON

Erromoko erakustaretoak argazki-erakusketa aipagarri bi paratuko ditu hil honetan. Lehenengoa, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatuko eta jatorrizko herri mugimenduetako emakumeen gainekoa izango da. Enrique Pimoulierren erakusketa hilaren 17tik 28ra egongo da ikusgai. Ostera, bigarren erakusketa, “Sarayaku herria: Petroleo enpresen aurka”, hilaren 31tik apirilaren 7ra arte ikusi ahalko da.

## ATZERRITARTASUN ARAUDIAREN GAINEKO INFORMAZIO SAIOAK

Getxoko Udaleko Immigrazio eta Kulturantzatasun Unitateak etorkinei eta bertoko enplegu-emaileri zuzendutako atzerritartasun araudiaren gaineko informazio saioak antolatuko ditu. Saiok hilaren azken eguaztenetan egingo dira, eta HELDU zerbitzu juridikoko abokatuek eskainiko dituzte. Lehenengo saioa eskaini dute dagoeneko eta hurrengoak hauek dira: hilaren 25ean, apirilaren 29an, maiatzaren 27an, ekainaren 24an, uztailaren 29an, irailaren 23an, urriaren 28an, azaroaren 25ean eta abenduaren 30ean. Udalaren arabera, Getxo da Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona etorkin gehien jasotzen duen udalerrietako bat, 2008ko abenduaren 31n udal eroldan izena emanda zuten 81.792 lagunetatik 5.253 atzerritar baitziren, guztien %6,42; horietatik 3.200 lagunek dute udalerrian bizitzeko beharrezkoa den baimena.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA



**Estibaliz Gil eta Teresa Maura** > EAEko Munduko Medikuek elkarte

“Ikerketen arabera, prostituzioaren bezero asko mutil gazteak dira, zerbitzuok erabiliz amaitzen dute jaia”

**Mujeres de vida alegre erakusketa ikus daiteke EHUren Leioako kanpusean, martxoaren 26ra arte. EAEko Munduko Medikuek elkarteak antolatu du, sexuaren emakume langileen egoeraren barri emateko. Elkarteko kide dira Estibaliz Gil, Mobilizazio Soziala arloko arduraduna eta Teresa Maura, presidentea. Beraiek kontatuko dizkigute erakusketaren nondik norakoak.**



Bailen kaleko lehenengoan daukate bulegoa, Bilbon

—Zer topatuko du erakusketan bisitariak?

—Paneletan prestatu dugu. Prostituitutako emakumeen 32 argazki agertzen dira, eta beraien lekukotzak; euren bizitza kontatzen dute, zelan heldu diren egoera horretara eta zelan bizi diren. Tratu txarrak jasotzeko arrisku egoera, pertsonen trafikoa, zein mafiei buruz berba egiten dute. Erakusketa oso polita da. EHUko erakustaretoan ipini dugu, liburutegiko eraikinean. Goizeko 11:00ak eta arrastiko 15:00ak bitartean bisita daiteke.

—Euskal Herrian lehenengoz muntatu duzue?

—Peraltan jarri genuen, baina lehen aldia da elebidun egiten duguna, gazte-leraz eta euskaraz. Espainia osoan ibili ohi da erakusketa, baina gurera egokitu

dugu, hau da, euskara gehitu diogu.

—Zein helburugaz osatu duzue?

—Prostituzioan lan egitera behartuta dauden pertsona horiek bizi duten egoera erakutsi gura dugu, era berean, jendea sentsibilizatu eta egoera horiek salatu.

—Zer dela-eta unibertsitatean erakutsi?

—Ikuslego oso zehatzari erakutsi gura genion. Emakunderen eta Askabideren azken ikerketen arabera, prostituzioaren bezeroen artean asko mutil gazteak dira, asteburuko

parrandan pertsona horien zerbitzuak erabiliz amaitzen dute. Unibertsitatean bezeroak, edo etorkizunean bezero izan daitezkeenak egon litezke. Informazioa aldeztetik edukitzea garrantzitsua da.

—Bestelako ekimenik egingo duzue?

—Bai, bisita gidatuak ere egingo ditugu. Gainera, mahai ingurua egingo dugu martxoaren 25ean, Gizakien Trafikoaren Aurkako Europako Egunagaz bat. Liburutegiko hitzaldietarako aretoan izango da, 12:30ean. ○

## Futbola euskaraz

Koikili Lertxundi, Mikel Aramaio eta Luis Llopisegaz **entrenamenduak euskaraz** eskainiko dituzte



Martxoaren 9an egin zuten lehenengo saioa, Sarrienako zelaian

**Euskararen** erabilera futbol munduan normalizatzea du helburu *Leioa zabaldu euskarari: futbola euskaraz* ekimenak. Zehazki, “*umeez entrenamenduak eta partiduetan euskaraz egitea, dibertitzen dituen euskaraz egin dezatela*” lortu gura du Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Horretarako, hiru profesionalen laguntza izango dute hurrek entrenamendu batzuetan. Horiek dira Koikili Lertxundi Athletic Clubeko jokalaria, Mikel Aramaio Athletic Fundazioko entrenatzailea eta Luis Llopis Athletic Clubeko atezainen entrenatzailea. Hainbat saio egingo dituzte umeakaz maiatzera bitartean. Martxoaren 9an egin zuten lehenengo. Gainera, maia-

tzaren amaieran Athletic Clubek Lezaman dauzkan instalazioak bisitatu-ko dituzte umeek, eta entrenamenduetan, ustekabeko bisitaren bat edukiko ei dute.

Leioako Emakumeak futbol taldeko 7-12 urte bitartekoek, 13-16 bitartekoek, S.D. Leioako Benjamin mailakoek eta haur mailakoek parte hartuko dute.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren araberak, kirolak umeen aisiaren parte oso garrantzitsua betetzen du, horrexegatik, hizkuntza normalizatu gura dute: “*Oso inportantea da hemen eragitea, euskara eta kirola, kasu honetan euskara futbolaraz lotzea*”. Aurrerago beste kirol batzuek ere behar egin gura dute. ○

## HOROSKOPOAREN PARKEA EGINGO DUTE SARRIENAN

“Zelta kultura eta euskaldunaren antzekotasunak islatu” gura ditu Udalak Horoskopoaren Parkeagaz eta zuhaitzak izango dira bertan protagonista. Sarrienako futbol zelaien ondoan egingo dute, 60.000 euro kostako da. Berdeguneak 7.000 metro koadro izango du eta 22 zuhaitz espeziek osatuko du. Barruko bide bat egingo diote markatutako 22 puntuetara heltzeko. Seinaleotan agertuko dira arbola mota, urteko zein sasoiaren loratzen den, pertsonakaz bat egiten duen data, zodiakoa eta arbolak pertsonakaz dituen antzekotasunak, euskaraz, gaztekeraz eta latinez.

## TXORIERRIN HIRIGINTZA MOLDAKETAK

Txorierri hainbat hirigintza ekintza iragarri ditu Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailagaz adostutako akordioaren ondorioz. Igogailu batek lotuko du Txorierri Lamiakogaz eta Txopoetaz. Etxebizitza eraikin bat egingo dute, BOEakaz eta etxe tasatuakaz. Plaza, pasealekua eta begiratokia ere eraikiko dituzte. Gainera, “*Gasteizko Etxebizitza sailak lurren desjabetzeak egiteko beharrezko kudeaketak egingo ditu, hiru eraikinen eraispinak (Langileria 78, 80 eta 82 zenbakiak), etxeotako bizilagunen indennizazioa eta birkokapena, eta lurzoruen egokitzapenerako desmonteak*”, iragarri du Udalak. Aurten “*Udal planeamenduan egin beharreko aldaketak egingo dira, proiektu handi honen lehen pausoak 2010ean hasteko*”, jakinarazi du.

## EUSKARA ZERBITZUKO HAINBAT EKINTZA PREST

Izena eman daiteke dagoeneko Euskara Zerbitzuaren irtenaldietan. Apirilaren 14tik 17ra izango dira Arantzara (7 eta 12 urte bitarteko umeentzat) eta Bertizko aterpetxera (12 eta 16 urte bitartekoentzat).

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

## [erandio]

**Jose Blanco** > Keli taldeko partaidea, Ametsakaz lan egiteko tailerra eskaini du

“Ametsak egunerokoan erabil daitezke, subkontzientean dauzkagun historiak kontatzen dizkigute eta”

**Ametsakaz lan egiteko tailerra eman du Jose Blanco martxoaren bigarren asteburuan, Lutxanako eskoletan. Keli taldeak antolatu du ikastaroa, hirugarrenez. Ametsen interpretazioaz zerbitu gehiago ezagutzeko aukera eman digu Blanco.**

—Bitxia da, gure arreta erakarri du ametsakaz lan egiteko tailerrak, zertan datza?

—Ametsak interpretatzeko eta horiekaz lan egiteko hainbat teknika dago. Interpretazioa aipatzen dut; izan ere, ametsak egunerokotasunean erabil daitezke, istorioak kontatzen dizkigute eta; subkontzientean dauzkagun istorioak dira. Interpretazioagaz zera esan gura dut, zer esan nahi duten; ez da Freuden estiloko interpretazioa, oso pertsonala da. Ameslariak bakarrik interpreta dezake bere ametsa, berak baitauka bere bizitzaren barri, berak bakarrik baitauka klabeak ametsa ulertzeko. Horretan datza ametsaren sinbologia, norberak bakarrik eduki dezan interpretatzeko klabea. Atal horren barruan ere kokatzen dira ametsak gogoratzen ikastea, eta amets egiten ikastea. Batzuek ez dute sinesten gura duzuna amets daitekeenik, baina benetan egin daiteke. Horregaz guztiagaz egin dugu behar. Osasunarentzako ere



Lutxana auzoko eskoletan egin ohi ditu ekimenak auzoko Keli taldeak

onurak dakartza, hobeto lo egiteko...

—Beraz, beste atalen bat ere badago?

—Bai, ametsakaz behar egitea landu dugu beste atalean. Ametsa ostera ere bizitzea da kontua. Ametsak mezu asko helarazten digu eta ametsen bertan aurrera egiteko baliogarririk dira. Hau da, ametsak amaitu bako prozesua dira, eta lan honeguz ametsa amaitzeko. Ametsa bizitzea besterik ez da gertatzen batzuetan, baina badaude ere amesgaiztoak. Horien oinarrian gatazka dago, ametsa eragin duen gatazka hori bizitzean

edo ezagutzean datza kontua.

—Nolatan dakizu hainbeste gaiari buruz?

—Neure buruagaz hasi nintzen. Ametsen mezu bitxiak jasotzen hasi nintzen eta gero liburuetan ikus nitzakeen. Hori nola izan zitekeen galdetu nion nire buruari, gaiaz informatzen eta hareguz beharren hasi nintzen. Hainbat ikastaro egin ditut. Lutxanan hirugarrena izan da hau, eta lagun askok parte hartu du beti. Gaian aurrera egiten saiatzen naiz tailer batetik bestera. ○

## Udaleko bajak betetzeko aukera edukiko dute Udaleko lan poltsan izena emanda dutenek



Erandioko Udaletxea eta aurreko plaza

**Udaleko** lan poltsan apuntatuta daudenek aurrean ere aukera izango dute Udaleko lanpostuetan sortzen diren bajak betetzeko. Izan ere, Osoko Bilkurak erabaki du hutsik dauden lanpostuak esleitzeko oraingo irizpide berberen arabera jokatzeko. Gaur egun 55 plaza finko bete barik daude, oposizio bidez adjudikatu zain. “Udalaren behar zehatzetara aurre egiteko ondo funtzionatzen du” sistema horrek, Joseba Goikouria Funtzio Publiko ordezkaririk dioenez.

### PSE-EEren plana

Bestalde, “langabeziaren ondorioei aurre egiteko” plan bat proposatu du Udaleko PSE-EEk. Besteren artean, *Udaleko Esku-hartzeko*

*Taldeak* lan programa abian jartzea proposatu dute. Herriko langabeek osatuko lituzkete taldeok eta herriko kaleetan barritze txikiak eta mantentze-lanak egiteaz arduratuko lirateke. Gainera, neurri apur bat handiagoko lanak ere herriko langabeek egitea proposatu du. Esaterako, Eroski merkatalguneko Astrabuduko sarbidea hobetu, edo landa-eremuetako bideen garbitzea eta mantentzea.

Udal-diruaren menpeko lanpostuen %10, bestalde, gizarte bazterketa pairatzeko arriskua edota lana lortzea oso zaila daukatek betetzea ere eskatu du PSE-EEk. Udalzaintzaileen zerbitzua sortzea ere beharrezko deritza, oinezkoentzako bideetan eta eskolen sarbideetan bide-segurtasuna indartzeko. ○

## KARGUARI UKO EGIN DIO EB-KO ZINEGOTZIAK

Vicente Cubillas Ezker Batuak Erandion zeukan zinegotzi bakarrak kargua utzi du, arrazoi pertsonalak medio. EAJK, PSEk eta PPK egindako lana eskertu zioten, “izandako desadostasunen gainetik”, Mikel Arieta-Araunabeña alkatearen berbetan.

## LANTEGI BATUAK-EN ALDAMENEAN SEMAFOROA IPINI DUTE

Ibairen ondoan kokatuta dago Lantegi Batuak-en tailerrak eta aldamenen semaforoa ipini dute. Lanera doazen pertsonak istripua jasateko arriskua gutxitu izan gura dute horrela. Izan ere, lantegirako sarrera bide estua da, errepideari lotuta; milaka auto igarotzen da errepide horretatik egunero. Dozenaka lagunek egiten du lan tailerrotan.

## LEONARDO ALEJOREN PINTURAK ERANDIOKO ARTISAUTZA ZENTROAN

Figurazioaren eta abstrakzioaren artean dabilen margolaria da Leonardo Alejo. Bere margoak ikusgai egongo dira Artisautza Zentroan martxoaren 21era arte. “Musikan gai berari buruzko aldaerak izaten diren bezala, halaxe erazten da bere pinturaren diskurtsoa ere”.

## AFRIKA AHAZTUA ERAKUSKETA ASTRABUDUAN

“Afrikako zenbait herrialdeetan babesik gabeko haurrei laguntzeko”, osasunean, hezkuntzan eta giza eskubideen defentsan garatzen dituen jarduerak erakusten ditu Tierra de Hombres Fundazioak *Afrika ahaztua* erakusketan. Martxoaren 17tik 31ra egongo da ikusgai Josu Murueta Kultur Etxean, Astrabuduan.

Informazio gehiago: [www.tierradehombres.org](http://www.tierradehombres.org)

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37



## Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa  
**DEITU!**

Tf. 94 467 17 13  
FAX 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Sakelakoa  
Asier: 629 411 838  
e-posta: [basolanak@terra.es](mailto:basolanak@terra.es)

## Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

## HONDAKINAK ORTUPELLAN KUDEATUKO DITUZTE

Bizkaiko Aldundiko Ingurumen Sailak burutzen jarraituko du Udalak sortutako hiri-hondakinen prozesamendua, lankidetzaz hitzarmena onartu dute eta, Udalak jakinarazi duenez. Ondorioz, Garbiker enpresak kudeatuko ditu hondakinak Ortuellako zabortegean, Orkonera auzoan. Bien arteko aurreko hitzarmenak ezartzen zuten, herriko hiri-hondakinak Jatako zabortegean batu behar ziren, Lemoizen. Baina zabortegearen itxieraren ondorioz, lekuz aldatu behar izan dute eta lankidetzaz hitzarmen barriak ziurtatu egiten du sopeloztarren hondakinen "tratamendu egokia".

## HIRIGINTZA AHOLKU BATZORDEA IZANGO DA

Hirigintza Aholku Batzardea eratuko du Udalak. Gaiari buruzko informazioa jasotzeko interesa duten herritarrek eta herri-elkarteak bilerak egiteko egutegia planteatuko dute Batzardearen bitartez. Kontsultarako Batzardearen irudia edukitzea aurreikusita dago Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruaren Legean.

## UDABERRI JAIA IZANGO DA MARTXOAREN 21EAN

Zuhaitzak loratzen hasi dira, udaberria bertan dela iragartzen dute. Negu luzearen ondoren, udaberriaren etorrera ospatzea merezi du eta Udaleko Kultura sailak Udaberri Jaia antolatu du hirugarrenez. Martxoaren 21ean izango da, udaberria iristeaz bat, Udaletxe plazan. Goizean hasiko dira ekimenak, 11:00etan, haur ludotekagaz eta birziklapen jokoakaz. Eguerdiko 12:00etan loreak banatuko dituzte, eta 13:00etan, animazio ikuskizuna egongo da. Arratsaldean ere egongo da zer egin, pilotalekuan, 19:00etatik aurrera; diskofesta, karaokea eta animazioa izango dira jaun eta jabe. Loreak, eguraldi epela, udaren iragarle... aitzakia hoberik behar al da hurreratzeko?

## Ona txartela iritsi da herrira

### On line egin ahalko dira tramiteak

### Osakidetza, Liburutegia edota Udalagaz



Medikuagaz hitzordua egin ahal izango da Ona txartelagaz

Ona txartelaren bidez administrazioak harremanetan jarri ahal izango dute sopeloztarrek hil honetatik aurrera. Hainbat administrazioagaz harremana, baina txartel bakarragaz. Erabilera anitza izango du. Berbarako, Osakidetza, medikuagaz hitzordua zehazteko, edo medikuz aldatzeko. Udalagaz tramiteak era digitalean egiteko aukera ere eskainiko du, baita Udal Liburutegian liburuak maileguan hartzeko ere.

Izenpe, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresaren arteko lankidetzaz hitzarme-

nari batu zaio Sopelako Udala eta hari esker heldu da txartela herrira. Osoko Bilkuran erabaki zuten hitzarmenagaz bat egitea, txartel elektronikoen erabilera sustatzeko.

Ekimenagaz "hiritarrek Udalagaz duten harreman telematiko indartu" gura dutela jakinarazi dute Udaletik; baina era berean, "txartelak ez du hiritarren daturik izango, Datuen Babeserako Legeak aurreikusten duenari jarraituz". Txartela giltza erakoa da, eta doan ari dira banatzen herritarren artean martxoaren 9az gozotik. ○

Nidia Alvarez > emakumeak eta literatura erakusketa

"Emakume idazleei garrantzia eta zor zaien lekua ematea pentsatu genuen"



Martxoaren 9tik 13ra egin dute erakusketa

**Emakumeak eta literatura** erakusketak gidatua egin dute Sopelan, eskoletako umeei zuzenduta. Nidia Alvarez koordinatzaileagaz berba egin dugu. Beste hainbat herri ere bisitatu dituzte.

—Gai bitxia erakusketa batentzat, zertan dantza?

—Helburu bi ditu. Bata literatura edo irakurtzeko gogoia umeengan esnaraztea da, egun telebista eta horrelakoak gainezka daude eta. Liburuak irakurtzea polita dela esan gura diegu. Bestea, martxoaren 8agaz lotuta doa. Konturatu gara umeei idazleen izenak galdetuta, beti gizonen izenak esaten dituztela. Hamar emakume idazle hauei garrantzia eta zor zaien lekua ematea pentsatu genuen. Beren bizitzetako buruz gauza interesgarriak kontatzen ditugu.

—Nola antolatu duzue?

—Panel handiek osatzen dute erakusketa. Hamar panel hamar emakumerentzat. Bakoitzari buruz zerbait jartzen du bakoitzean. Mariasun Landa, J. K. Row-

ling, Gloria Fuertes, Simone de Beauvoir, Lucia Etxebarria, Marian Keyes, Miren Agur Meabe, Isabel Allende, Jasone Osoro eta Txaro Arteaga dira. Azken hori sartu dugu; izan ere, Emakunde erakundeari buruz zer edo zer esaten du erakusketak.

—Nolakoak dira bisita gidatuak?

—Aktore batek egiten ditu. Labandera jantzita doa, hori da bere papera eta berak bideratzen du bisita. Antzerkia sartzen du berak, ez da ohiko bisita gidatua. Esaterako, Lucia Etxebarriari buruzko panelean ez ditugu

**«Umeengan irakurtzeko gogoia esnaraztea da helburuetako bat»**

ehunka datu eta data sartu. Gauza interesgarriak kontatzen ditu aktoreak hari buruz. Arina da. Umeek ere parte hartzen dute ekintza bitan; idazten dute, kostatzen zaie, literatura aspergarria dela uste dutelako. Baina konturatzen dira behin jarrita, zer edo zer ateratzen dela. Idazleen artean emakume ezagun asko dagoela ere konturatzen dira. ○

**LAIKAK**  
**Taberna**

Bentatu 2  
48600 Sopela  
Tf. 94 676 03 28

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa  
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa 6 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

**4 bide**  
pinturak



RIPOLIN  
BONDÉX  
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER**  
**DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**LIBURUAK BATZEN DABILTZA, LIBURU AZOKARAKO**

Etxeko liburu zaharrak Santa Ana eta Berangoeta kultur etxeetara eroateko deia luzatu dute. Apirilaren 20tik 25era Liburuaren Astea ospatzekotan dabilta eta liburuak behar dituzte. Izan ere, azken egunean, 25ean, Liburu Azoka Solidarioa egingo dute 10:00etatik aurrera, pilotalekuan. Berangoztarrek Kultur Etxeetara eroaten dituzten liburuak puntuengatik trukatu ahal izango dituzte, edo hobeto esanda, *liburitoengatik*. Azoka egunean beste liburu batzuk erosi ahal izango dituzte puntuokaz, 10:00etatik 11:30 bitartean. Diruz ere erosi ahal izango dituzte. Batutako dirua *Fundacion Tierra de Hombres* gobernuz kanpoko erakundeari emango diote. Afrikako umeakaz lan egiten du erakunde horrek, zehazki, gaixo dauden haurrak Gurutzetako Ospitalera ekartzen dituzte bertan ebakuntza egiteko.

**KARTEL DISTIRATSUAK JARRI DITUZTE UDALAREN OHARRAK ZABALTZEKO**

Hiru kartel distiratsu ipini ditu Berangoko Udalak auzotarrei informazioa helarazteko. Metro geltokitik gertu dago bata, Sabino Arana kalean; Simon de Otxandategin ipini dute bigarrena, Asgane auzoaren aurrian, eta Santa Anako basilizaren ondoan kokatu dute azkena. Kultur ospakizunak, Udalaren oharrak edo udal zerbitzuen ordutegiak zabalduko dituzte.

**Turikaldoi**

JOKIN GARATE BAYO    KIMETZ GARATE AZURMENDI  
 Neguriko Etorbidea 9    Aingeruaren etorb. 4B  
 T: 491 14 87    (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
 48990 NEGURI    48990 GETXO

**Lantzarterako** egitasmoa Zelaia urbanizatzeko **proiektua azaldu die Udalak auzokoei**, baina beraiek **ez datoz bat**



Lantzarte auzoko landaren zati bat urbanizatuko luke Udalaren egitasmoak

**Hika-mika** sortu da herrian Lantzarteko zelaia urbanizatzeko egitasmoa dela eta. Udalak etxebizitza tasatuen eraikina egitea proposatu du. Oraingo etxeetatik 25 metrora eraikiko lukete. Beheko solairua eta beste lau solairu edukiko lituzke. Porlanezko plaza, bide barriak eta apartzeko 94 plaza ere egingo lituzkete.

Lantzarteko zelaiak 12.115 metro koadro dauzka, horietatik 1.830 okupatuko lituzkete etxeek. Hortik 8.412 metro koadro arte, plaza, aparkalekuak eta 1.095 metro koadroko berdegune batek okupatuko lituzkete. Gainontzeko 3.703 metro koadroak

bere horretan utziko lituzkete, orain arteko orube berde gisa. Datuok azaldu zizkien Anabel Landa alkateak auzokideei otsaileko bileran. Era berean, egitasmoa ez dela isolatua jakinarazi zien, *“plan orokorraren baitan planteatzen diren ekintzetako bat baino”*.

Baina auzokideak ez daude ados, orubearen salmentagaz lortutako dirua herriko erdigunean kirol instalazioak egiteko erabiliko delako, hots, Lantzartetik 660 metrora. Udalak egitasmoa birbidera dezan eskatu dute auzokideek. Dagoeneko mila sinadura batu dute. EBk proiektua *“berehala gelditzeko”* eskatu du. ○

**Barrikako bizilagunak** > Semaforo eta zebrabide eske

“Bizitza arriskuan ipini behar dugu egunero autobusa hartu ahal izateko”



Barrikako bizilagunak autobus geltokian; bertan semaforoa jartzeko eskatzen dute

**Gauza** arruntak dira semaforoak denontzat. Egunero herriko edozein kaletan, espaloitan geldirik egoten gara, laguntxo gorria berde bihurtzeko zain. Baina, gure eskualdean, badago oraindino semaforo eta zebrabide baten faltan, egunero bere bizitza arriskuan ipintzen duenik. Barrikako bizilagunak denbora dezente daroate Sopela-Barrika errepiderako semaforo eske, baina oraindino ez dute erantzun argirik jaso: *“Orain dela urte bi Udalekoakaz batu ginen; semaforoa ipintzearen ardura Bizkaiko Foru Aldundiarena zela esan ziguten. Aldundi-koak hurrenatu ziren, baina ez zuten ezer konpondu; semaforoa ipintzeko ikuspen gutxi zegoela esan zuten”*.

Egunero, hamarnaka umek eta gazte kpasa behar dute errepidea eskolako autobusa hartzeko; inguruko baserritarrak, zaharrak gehienak, Udaletxe ingurura edota inguruko herrietara eroango dituen autobusa hartu ohi dute: *“Bisitatu datozen*

*senideak beldur dina, ez baitute errepidea zeharkatu gura. Zer esanik ez, erosketakaz bagatoz, bost minutuz itxaron behar izaten dugu. Gainera ezbeharra gertatuz gero, gure errua izango litzateke, ez garelako igarobide legal batetik pasa”*. Kotxeek, abiadura handia hartzen dute Sopela-Barrika errepidean; azken urteotan, trafiko istripu ugari egon da inguru horretan: *“Orain gutxi,*

**«Ume eta adineko askok erabiltzen du autobus geltokia»**

*emakume batek markesina jo zuen. Zorionez ez zen ezer gertatu, ez zegoelako inor autobusaren zain”*. Hazten doan herria da inguru horretan: *“Zer itxaron behar dugu, ezbeharra gertatu arte? Orduan berandu izango da”*. Haserre daude Barrikako bizilagunak: *“Ez dugu lar eskatzen. Semaforo eta zebrabide bat bainok ez”*. ○

**AIXERROTA BHI**  
 24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
 • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
 • GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
 ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

**TXIBERRI**  
 edantokia  
 frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
 T: 94 676 07 15

**BASTARTEA**  
 URDULIZ  
 Telefona: 940 701 120

Ajuria  
 taberna

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**

**Taberna Berri**  
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
 Tf.: 944 306 493

**VIEJO CAFE**  
 kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
 ALGORTA

## ASTE SANTUAN TXANGOAK EGITEKO AUKERA MANKOMUNITATEAGAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako Aste Santurako plan bikaina antolatu du Uribe Kostako Mankomunitateak. *Oporretan txangora* ekimenaren barruan, hiru txango egingo dituzte Donostiara, Enkarterrietara eta Galdamesera. Izen-ematea martxoaren 16, 17 eta 18a izango dira, bulegora hurbilduz edo [www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org) web orriaren bidez.

## URDULIZKO ELORTZAKO BIRIBILGUNEAN HOBEKUNTZAK

Espainiar Estatuak Udaletan inbertitzeko emandako diru poltsagaz, Elortza auzoko biribilgunea hobetu eta egokituko du Urdulizko Udalak. BI-634 errepideko barrikuntzakaz bat egiteko zabalduko dute biribilgunea. Gainera, sarrerak hobetuko dituzte kotxeentzat eta oinezkoentzat. Espaloia Atxarte ingurura arte.

## ERAKUSKETA ETA TXANGOA PLENTZIAN

Araldi Kultur Elkarteak antolatuta, Karrantzako bainuetxera txangoa egingo dute plentziarrek hilaren 27tik 29ra. Gura duenak, izena eman dezake 94 677 50 31 telefonoan edo [araldi@aralდიplentzia.org](mailto:araldi@aralდიplentzia.org) helbidean. Honez gain, Goñi Portaleko argazki lehiaketako lanak erakusgai egongo dira martxoaren 16tik hil amaiera arte.

## GORLIZ

### II. Zortziko Lehiaketan izena emateko epea zabalik



Uztailaren 10era arte egongo da zabalik izena emateko epea

**Uztailaren 27an** ospatuko dute Gorlizko Iberbarri plazan *Zortziko interpretatzeko II. Lehiaketa*. Horretarako oraindino hilabete batzuk geratzen badira ere, izena emateko epea zabalik dago jadanik. Gura duenak, uztailaren 10a bitartean hurbildu beharko du Gorlizko Kultur Etxera. Bertan, parte hartzaileen datuak ematez gain, partituren kopiak aurkeztu beharko dituzte.

Bakarlariak, bikoteak, hirukoteak, lau-koteak, boskoteak, seikoteak eta otxoteak har dezakete parte eta edozein motatako

ahots taldeak izan daitezke. Euskaraz, zein gazteleraz abes daiteke, eta ez da denbora neurri finkorik egongo. Iraupena, partituraren arabera izango da. Epaimahaia, musika munduko lagunak osatuko dute; espresioa, tinbre aberastasuna, musika formulazioan errespetua eta partituren kalitatea baloratuko dituzte. Hiru sari banatuko dira, 250, 150 eta 100 eurokoak. Hala ere, sariren bat hutsik gera daiteke. Berdinketa gertatuz gero, beste abesti bat interpretatu beharko dute. ○

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA  
Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
Tel. 94 668 15 51  
Faxa. 94 66829 92  
e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)

# Mar. 16 - Mar. 31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## KORRIKA 16

### ERANDIO

► **Kantagunea.** Martxoaren 26an, 19:30ean, La Plaza tabernatik hasita, Korrika hasiera ospatzeko.  
► **Afaria.** Martxoaren 28an, zapatua, Altzaga eskolan. Izena eman daiteke ohiko lekuetan.

### LEIOA

► **Euskeraz kantari.** Martxoaren 27an, 19:00etatik aurrera Taberna ibiltaria, eta 21:00etan kantu afaria.

### GETXO

► **Morritson eta Gartzia: Kultoko antzezlan.** Martxoaren 31n, The Piper's tabernan, 20:00etan.  
► **Hudaltzainak.** Apirilaren 2an, The Piper's tabernan, 20:00etan.  
► **Korrika eta jaia.** Martxoaren 3an, Erromoko Santa Eugenia, 18:00etan.

### SOPELANA

► **Bidaia intimoak dokumentala.** Martxoaren 27an pilotalekuan, 20:00etan.

### PLENTZIA

► **Jaia.** Martxoaren 28an. Umeen jolasak 11:00etan eta Sagardotegi ibiltaria portuan, 19:00etan.  
► **Korrika eguna.** Apirilaren 3an, Triki-bertsu-poteoa Plentziatik Gorlizera.

### GORLIZ

► **Korrika eguna.** Apirilaren 3an. Arratsaldean umeentzako jolasak eta sagardotegi ibiltaria. Bertso afaria 22:00etan.

## ZINEMA

### ERANDIO

► **Crepusculo.** Martxoaren 21ean, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean 21:00etan, euro 2.



Orain bi urteko Korrikaren irudia

► Euskara

### Korrika 16 iristear dago!

Korrikaren 16. edizioa abiatzeaz da Tuteran. Martxoaren 26an ekingo dio ibilbideari eta apirilaren 5era bitartean zeharkatuko du Euskal Herria, Gasteizera iritsi arte. Uribe Kosta ere bisitatuko du. Apirilaren 3an helduko da Lemoizera, barikuan, 13:53an. Eskualdea zeharkatuko du ondoren, Gorliz, Plentzia, Barrika, ostera ere Plentzia, Urduliz, Sopelana, Berango, Algorta, Itzurbaltzeta, Leioa, Astrabudua eta Erandio. Goizean egingo dituzte Korrika txikiak herriz-herriz. Biharamunean, zapatuan, Erandiotik beste itzuli bat egingo du. Ibaitek iritsiko da lekukoa goizeko 07:30ean Altzagara, eta handik abiatuko da Goikoara eta Asuara. Ondo etorri guztiok euskararen aldeko lasterketara!

• **Non:** Lemoizetik Erandiora • **Noiz:** Apirilaren 3an eta 4an

## ERAKUSKETAK

### URDULIZ

► **Pintura.** Martxoaren 25etik 31ra.

### GETXO

► **My tourist colleagues, Raul Hernandez argazkiak.** Martxoaren 21era arte, Villamonteko kultur etxean, Algortan.

► **Emakumeak herri indigenen mugimenduetan.** Martxoaren 28ra arte, Itzurbaltzetako erakustaretoan.

## MUSIKA

### ERANDIO

► **Dantzaldia orkestragaz.** Martxoaren 22an, 17:00etan, Altzagako azoka zaharrean.

### GETXO

► **San Patrizio folk kontzertua.** Martxoaren 18an, Algortako The Piper's tabernan, 21:30ean, doan.

► **Olerkiak eta musika.** Martxoaren 27an, 19:00etan, Algortako Kultur Etxean.

## ANTZERKIA

### BARRIKA

► **Toni La Sal. Antzezkiuna taldea.** Martxoaren 28an, 12:00etan.

### LEIOA

► **Dantza Zirkuitoa.** Martxoaren 19an eta 26an, Kultur Leioako Auditoriumen, 20:00etan. Sei euro.  
► **La exacta superficie del roble.** Martxoaren 27an, Kultur Leioan, 20:30ean, 12 euro.

### ERANDIO

► **Txan Magoa.** Martxoaren 18an Altzagako azokan, 18:00etan, doan.  
► **Umorezko bakarriketa, Daniel Perez.** Martxoaren 29an, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, 19:00etan. Sarrera euro 2.

## BESTEAK

### BARRIKA

► **Ballet eta Kung-Fu.** Martxoaren 21ean, 11:00etatik 13:00etara.

### ERANDIO

► **Sendabelarrak eta preparauak ikastaroa, euskaraz.** Apirilean eta maiatzean. Izena eman behar da apirilaren 13a baino lehen.  
► **Dantza exotikoak ikastaroa, euskaraz.** Apirilean eta maiatzean. Apuntatu apirilaren 28a baino lehen.  
► **Jorge Blanco XX. memoria.** Martxoaren 19an, 10:30etan.

### PLENTZIA

► **Kontserbak eta mermeladak ikastaroa.** Maiatzean. Izena eman behar da Goñi Portalen, martxoaren 28a baino lehen. Doan.

### GORLIZ

► **Arku jaurtiketa eta tirolina.** Martxoaren 21ean eta 28an, aterpetxean.



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



[albuma]



# Azken egunak

Titiriteroak, bertsolariak, dantzariak, eskoletako ume artistak, aktoreak, magoak, raperoak, abeslariak, zine zuzendariak... horiek guztiak eta beste asko pasa dira Getxo Antzokiko eszenatokitik. Zer esanik ez, eserleku berdeetatik pasa direnei buruz. UKn, "Gran Cinemako" azken egunak ekarri gura izan ditugu gogora: azken kontzertuak, 2008ko abenduan makinak sartu zirenekoa eta gaur egungo hutsunea.

Argazkiak: **Asier Mentxaka eta Ane Basagoiti**





## Gran Cinema

Antzoki baten historia

Aurreko orri bietan, Getxo Antzokiaren azken egunetako irudiak ikusi dituzu; baita bere lekuan gaur dagoen hutsunearen argazkia ere. Askorentzat, gertaera historikoa izan da antzokiaren erausketa. Baina, badago, antzokia Gran Cinema zeneko garaiak oroitzen dituenik. Sarrerako panelak iragartzen zituen barruan ikusiko zirenak; sarreran, tiketak erosten zituzten ikusleek. Pezetakaz jaiotako antzokia, euroakaz agurtu dugu.

[berbetan]

Hogei urte bete dira lehen gazteek Espainiako ejerzitoan soldadutza egiteari uko egin ziotenetik. Milaka mutilek hartu zuten intsumisioaren bidea, asko eta asko epaitu zituzten eta asko ere kartzeleratu. Baina lortu zuten, derrigorrezko soldadutza eten zuen espainiar gobernuak, hori bai, ejerzito profesionalari bidea zabaldu zion. Jendarteren gehiengoak babestu zituen intsumisioaren aldeko taldeak. Horietako bat da Kontzientzia Eragozpen Mugimendua (KEM-MOC) eta bertako partaide da Jose Ignacio Royo Prieto Txose bilbotarra. Egun matematika irakasten du EHUko ingeniarietza eskolan. Intsumiso izateagatik espetxea ezagutu zuen hark ere.

# Txose Royo Prieto

## Intsumiso egin naiz, horixe da dana

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Txose, zu zeu 90eko urteetan intsumiso egin zinen, epaitu eta kartzeleratu ere egin zituzten. Baziren urte batzuk ehunka gaztek intsumisioa abiatu zutenetik, borroka pil-pilean zegoen?

—Bai, Belloch zen orduan Espainiako Barne eta Justizia ministro eta kode penala aldatu zuen kartzela zigorrak inhabilitazio bihurtuz.

—Otsailean 20 urte bete dira lehenengo intsumisioek Espainiako ejerzitoan derrigorrezko soldadutza egiteari uko egin ziotenetik. Bilbon eta Iruñean egin zituzten lehen agerraldiak, 1989an. Derrigorrezko soldadutza 2001ean bukatu zen, urte gutxi igaro dira, baina ematen du aspaldiko kontua dela?

—Ez da horren aspaldikoa, egia esan. Intsumisioaren kanpaina abiatu aurretik ere guk bagenekien soldadutza bukatuko zela eta ejerzitoa profesionala jarriko zutela. Baina gure mezua zen antimilitarismoarena, ez bakarrik soldadutza desagertzea, baizik eta ejerzitoak apurtzea; ejerzito guztien desagertzea. Beraz, soldadutzaren des-

gerpena ez dugu ospatu garaipena legez; soldadutzarena baino, gure garaipena litzateke bokazio militarren heriotza.

—Ejerzitoak bere horretan jarraitzen du...

—Baina armada profesionalerako hasieran 200.000 soldadu izango zirela esan zuten, baina eskaera gutxi izan dute, eta egun, 70.000 lagun baino ez daukate. Horregatik jarraitu dugu kanpaina hura bukatu ondoren. Armagintzak jarraitzen du, baita ere NATO, Mungiako koartela, gerrak... Horregatik, borroka antimilitarista ez da bukatu.

**“Koerenteak ziren mutil haiek, eta sinpatikoak; dena batuta, gure mezua nahiko erraz ulertu zuen gizarteak”**

—Orduan ez zuten onartu baina intsumisioak eragin handia izan zuen soldadutza amaitzeko?

—Kanpainaren garrantzitsuena zen gizarteari erakutsi geniola borroka daitekeela ez biolentzia eta desobedientzia

zibilaren bitartez. Intsumisioa oso tresna baliogarria eta eraginkorra izan da armada handiaren munstroaren aurka borrokatzeko. Orain hainbat borrokatan erabiltzen dute desobedientzia zibila, eta intsumisioa erreferente bat da. Gutxiren artean, ondo antolatuta tresna horiakaz, borroka daiteke eta garaipenak lor daitezke. AHTren aurkako borrokan ere erabiltzen da, Itoizko urtegiaren aurka koan... Horietan ere KEMeko jendea badago sartuta eta ez da kasualitatea.

—Hasieran lagun gutxi ziren intsumi-

so, nork pentsatuko zuen urte gutxiren buruan soldadutzagaz bukatuko zutenik, ezta?

—Faktore asko elkartu ziren orduan. Inportanteena zen gizarteari azaltzea zer zen intsumisioa, hitz berria zen eta.





Intsumisoak bazekien zigortuko zutela, baina bazekien salatu beharrekoa zela, koerentzia hori argi ulertu zuen jendeak. Dena den, ez ziren horren gutxi. Beno, lehen asteetan bai, ehun intsumiso inguru aurkeztu ziren, baina aurretik kontzientzia eragozpena delitua zenean, askok deklaratu zuen bere burua kontzientzia eragozle. Milaka lagun ziren eta Estatu arazoa bihurtu zen; erreserban jarri behar izan zituen, jasanezina zuelako. Beraz, mugimendua nahiko zabaldua zegoen. Gazte haiek gainera, sinpatikoak ziren eta jendearen hurbila. Ezagunak dira umore eta ironia erabiliz Gobernu Militararen koartelare aurrean egindako ekimenak. Koerenteak ziren mutil haiek, eta sinpatikoak. Hori dena batuta, gure mezua nahiko erraz ulertu zuen gizarteak.

—Jendartean babes zabala izan zuen intsumisioak.

—Bai, arlo guztietako jendeak bat egin zuen intsumisioagaz, unibertsitateko irakasleek, kultur arlokoek, kirolariak, sindikatuek, komunikabideetakoek, udaletxe batzuk intsumiso egin ziren gazteak erreklutatze lanari uko eginez... Oso inportantea izan zen. Gainera, epaiketetan, intsumiso bakoitzak autoinkulpatu ziren lau lagun eraman zituen. Batzuk oso ezagunak ziren. Estatuak soldadutzaren ordezkotza abiatu zuenean, sindikatuen babesak eduki genuen.

—Hori da, zergatik egin intsumisioa ordezkotza zerbitzua egiteko aukera bazegoen; ez zegoen soldadutzarik egin beharrik, ezta?

—Ordezko zerbitzua Estatuak erabiltzen zuen tresna zen desobediencia eta disidentzia bideratzeko. Soldadutzarik egin gura ez baduzu, egizu ordezkotza zerbitzua, eta horrela isilik egongo zara. Ezin onar genezakeen horrelakorik, izan ere, kontua ez zen alergia geneukala armak hartzeari, ez. Soldadutza ez egiteko gure arrazoiak politikoak ziren, ejerzitoaren abolizioa, desagerpena eskatzen genuen.

—Hogei urte Espainiako ejerzitoari lehen

intsumisoak aurkeztu zirela, baina Ipar Euskal Herrian ere intsumisioa egin zioten Frantziako ejerzitoari.

—Frantziako ejerzitoari uko egiteko ez da egon horren mugimendu zabala, antimilitarismoa ez da horren sendoa izan eta hori nabaritu da hainbat herrialdeetako ejerzitoen profesionalizazioan, ez dute arazo askorik eduki horiek abiatzeko. Soziologo ba-

**“Ordezko zerbitzua Estatuaren tresna zen desobediencia eta disidentzia bideratzeko, ezin onar genezakeen”**

tzuk aztertzen ari dira Espainiar estatuan egondako desobediencia mugimendua, paradigmatikoa izan da eta; desobediencia oztupoak jarri dizkie ejerzito profesionala egiteko. Europako beste estatuetan ez da horrenbeste mugimendu egon. Baina beno, egun NATOren eta armagintzaren aurkako mugimendua zabaltzen ari da hainbat herrialdetan. Hego Amerikan ere ikusi ditugu mugimenduak.

—Dena dela, eta Espainiako ejerzitoari dagokionez, nabarmenak dira aurrera egiteko dauzkan zailtasunak. Bere burua soldadu izateko aurkeztu duten oro onartu dute ia, azterketa gainditu ez arren; immigrante asko eta asko ere egin dira soldadu, paperak lortzeko bidea delako.

—Orain eskaera gehiago izaten ari dira, krisialdia dela eta; baina egoera ekonomi-

**“Borroka sozialak egiteko ohituragatik errazagoa da borroka hau; intsumisioa hemen indartsua izan da horregatik”**

koak hobera egiten duenean, ejerzitoa utziko dute.

—Nolatan sortu zen horrelako zerbait, nola iritsi zineten intsumisioa egitera, nondik dator?

—Historia osoan egon dira hainbat adibide, baina kokatzeko eta oso atzera ez joateko, Pepe Beunza valentziarra aipatzen da

normalean Espainia mailan lehen eragozle moduan, Frankoren garaian, 1971n, uko egin zion soldadutza egiteari eta gerra kontseilua egin zioten. Jehobaren lekukoek erlijio arrazoiak medio egin zioten uko. Baina Peppek arrazoi politikoengatik uko egin zuen lehena izan zen, eta Europan ohiartzun handia eduki zuen. Hortik aurrera kontzientzia eragozpen eta bakezale talde

asko batzen hasi zen, eta 1976an, batzuk lehen adierazpena egin zuten eta lan koordinatua egiten hasi ziren. Kontzientzia eragozpena eskatzen hasi ziren, baina ez Estatuaren kontzientzia eragozpena, beraie-na baizik. Hori debekatuta zegoen eta borrokak jarraitu zuen. Kontzientzia eragozpenaren Legea indarrean sartu zuten. Horren aurrean eta Europako esperientzia ikusita, haratago joan behar genuela erabaki genuen eta intsumisioa praktikara eraman genuen.

—Euskal Herrian indar berezia eduki zuen intsumisioak. Horretan eragina eduki al zuen historian zehar horrelakoei aurre egiteko ohitura egon izana?

—Bai, berezia izan zen. Nafarroako kartzela intsumisoz beteta egon zen, portzentaia izugarriak ziren. Beste taldeetan oihartzun

eta babes handia zeukan intsumisioak, horregatik izan zen borroka zabala. Bai, edozein borroka politikok anaiak izan behar ditu eta aldameneko talde sozialak lan egin behar da. Adibidez, armada kritikatzeko badugu, boterearen tresna delako da. Eta boterearen eragina ikusten da arlo ekologistan, nazioartekoan... Horregatik

oso naturala da beste talde sozialakaz batera egitea, beraiek babestea eta parte hartzea. Euskal Herrian borroka sozialak egiteko ohitura egonik, errazagoa eta eragin-korra da borroka hori, nabaritzen da. Intsumisioa hemen indartsua izan da horregatik, duda barik.

—Gaur egun soldadutza egiteko adina daukatenez ez dute ezagutu intsumisioa, ez zuten bizi, nola azaldu horie zer zen intsumisioa eta egun zer balio izan dezakeen?

—Hori gertatzen da Athleticagaz bezala, ezta? Gabarra ez dute ikusi... ezta intsumisioa ere. Nola azaldu? Nik zera esango nieke: zuk badaukazu Estatuari aurre egiteko ahalmena, konturatu behar zara Estatu gerra prestatzen ari dela gure laguntzagaz soldadutza egin behar ez dugun arren, armagintza egiten baitute gure zergakaz,

eta hori egiten dute guk onartu gabe, edo bai ala ez esan gabe. Badaukagu ahalmena ezetz esateko eta injustiziarri aurre egiteko. Intsumisioagaz oso nabaria zen injustizia hori, soldadutzara joaten zena ejerzitoagaz kolaboratzeko zen, horregatik zen oso nabaria injustizia eta oso gorrotagarria. Eta oso erraza zen azaltzea zergatik esan genion ezetz ejerzitoari.

**“Borroka egin behar da, gure bizitzan armadaren eragina eta eskatzen dutena hain nabaria izan ez arren”**

—Gaur egun injustizia hori ez da horren nabaria, ezta?

—Ez, ez da hain nabaria, horregatik borroka ez da horrenbeste ikusten, baina hemen badaukagu, borroka

horretan jarraitzen dugu. Uribe Kostan adibidez, Gobelan, badaukazue Sener ingeniariarri ari dira Israelek bonbardatzeko erabiltzen dituen gauez ikusteko tresna bat, F-14etan jartzen dute. Telebistan ikusten diren gerrak, hemendik antolatzen dira, Eusko Gobernuaren diru-laguntzagaz eta horregaz guztiagaz. Gazte

bati esango nioke aspaldi egin genuen borroka hura gaur ere egin behar dugula, nahiz eta armadak gure bizitzan daukan eragina eta eskatzen digutena hain nabaria ez izan. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu


**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / 48991 Gexbo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37




## Studio portraits


Ghanan jaio zen Philip Kwame Apagya 1958an. Bere erretratuek fantasia dakarte, erretratatuari jeneralean ezin lor dezaketena, gloria momentu batean edukitzeko aukera ematen die: telebista barra armairuetan, hozkailuak ondo beteta dituzten sukalde modernoak... dibertigarriak izan daitezkeen tipologiak, baina gura barik kezagarriak direnak. Izan ere, Mendabalderako joera eta amets tribal eta materialistak sortutako hutsune kulturala erakusten dute. Talde erakusketa askotan parte hartu izan du. 2008an, Algortako metro geltokian ikusi ahal izan genituen bere argazkiak, GETXOPHOTO jaialdian.

Argazkiak: **Philip Kwame Apagya**









I

# Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Tellexe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Tellexe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

## Animabasauri-Animabasque

Basaurin **ehundik gora animazio film** eskainiko dituzte **hilaren 20tik 27ra**



*Ghost in the shell 2* (Mamoru Oshii) filmaren irudia, Getxon ikusi ahalko da hilaren 21ean

**Basauriko** Nazioarteko Animazio Zinemaldiak, Animabasauri-Animabasque izendunak, 5. ekitaldia beteko du aurten. Hilaren 20tik 27ra egingo den jaialdiak Basauriko Sozial Antzokia izan du emanaldi gune nagusi, ostera, Bizkaiko beste udalerrri batzuetan ere ikusi ahalko dira Animabasauriko filmak, adb.: Bilbon, eta lehenengoz gure eskualdean ere bai, Getxon, Leioan (Artea merkatal zentroan) eta Erandion (aipamena zinemaldiaren webgunean baino ez da agertzen, udalitik ez dute emanaldirik baieztatu).

Ikus-entzunezko animazioa ezagutaraztea eta sustatzea helburu duen jaialdiaren asmo nagusia "animazio klasikotik" hasi, eta azken joeretako eta bitarteko barritzaileak egindako lanak erakustea da. Zinemaldiak sail ezberdinak dauzka, berbarako: animazio film luzean (Euskal Herria, Alemania, Hungaria, AEB, Txina, Italia eta abarretatik heldutako 10 lan) eta film laburren (35mm) sail ofiziala (Frantzia, Espainia, Portugal, Belgika, Brasil, Australia, Iran, Suitza, Turkia,

Israel eta abarreko 60 film); Karratu saila (film laburrak DVD euskarran; besteak beste, Ingalaterra, Suitza, Japon, Errusia, Argentina, Kanada, Errumaniatik heldutako 75 lan); aurten estreinatuko duten telesaileri begirako saila; Zine-animazio eskolena, Iberoamerikako lan aukeratuen, Goya sarietako finalisten eta. Horrez gainera, urtero atzerriko herrialde

**«Getxon ere Animabasauriko hainbat film ikusi ahalko dira hilaren 21ean eta 22an»**

bat hautatzen dute hango lanak eskaintzeko; aurtengo gonbidatua Alemania da.

Esan legez, Getxon ere hainbat film ikusi ahalko dira (Andres Isasi Musika Eskola; sarrera euro 2): hilaren 21ean *X, la película* (20:00) eta *Ghost in the shell 2* (22:00), eta hilaren 22an *La Princesa Mononoke* (12:00), *El Castillo ambulante* (17:00) eta *Evangelion 1.0* (20:00). ◊

Informazio gehiago:  
[www.animabasauri.com](http://www.animabasauri.com)

## Birziklatzearen onurak

Zarama taldea bueltan da oholtzak eta gainerakoak "zakarbarrizteko" asmoz



Irudian, Zaramariak. Informazio eta harremanetarako: [zaramatimes.blogspot.com](http://zaramatimes.blogspot.com) eta 636 46 03 35

**Santurtziko** taldeak Zarama Birziklatuaren Bira iragarri du, hasteko Euskal Herriko lau hiriburutako (Bilbo, Iruñea, Gasteiz eta Donostia) aretoetan kontzertuak eskainiko dituela aurreratuz. 15 urtez oholtzetatik urrun, baina zaramako lorak zaintzen egon ostean, 1977an Ezkerraldean sortutako taldea bueltan da. *"Zergatik? Urte askoren ostean, lagunak izaten jarraitzen dugulako... orain egiten ez badugu, nekez egingo dugulako beranduago, eta gure abestiak bizirik dirautela sentitzen dugulako. Itzuliko gara jakin gura dugulako gauzak nola egiten diren baldintza egokietan; horre-*

*tarako aukera sortu zaigulako. Zer demontre! Batez ere, dibertigarria delako... eta entseguitan sasoiko gaudela ikusi dugulako"* azaldu dute. Azken aroko 6 taldekideetatik 5 igoko dira taula gainera barriro.; Roberto Moso (ahotsa), Tontxu (gitarra), Alfonso (baxua), Ernesto Alava (bateria) eta Joseba Lafuente (teklatuak). Batzuentzat euskal rock&rollaren aitzindari izan ziren, beste batzuentzat "bigarren mailako" taldea; halere, zale andana izan zituzten, gazteegiak batzuk, ilea urdinu zaie askori... Baina pozik hartu dute barria denek! *Zaramaren erdian* elkarregaz lohituko garelakoan... ◊

## diskoak

**Change my style**  
Alex TNT  
Gaztelupeko Hotsak



Bartzelonako blues musikariaren azken lana. Steve Ray Vaughan, Albert King, B.B. King, Howlin' Wolf edota Johnny Guitar Watson eredu, bluesaren ezagutza sakonetik garatzen dabil bere bidea, baina musika beltzaren beste doinuek eta artistek ere moldatu dute bere nortasun musikala, baita diskoarena ere.

**Non zuztarra...**  
Laja eta Mikel  
Ekar



Iñaki Laja Garmendia trikitilaria eta Mikel Alustiza pandero-jotzailea eta abeslaria udaberriko berbenak girotzeko prest datoz *Non zuztarra, han adarra* bigarren diskoagaz. Herrikoia, freskoa, alaia eta ederra izango ei da, "baina batez ere kalitate handiko musika ekarriko du". Herri sena dario diskoari hasieratik amaiera arte.

**Color**  
Puro Chile  
Lorenzo Records



Euskal taula-gainetan bi urte ekin eta ekin ibili ostean, lehen diskoa kaleratu dute. Bederatzi abestiz eta bideo batez osatuta dago, Elorriko Arriola Antzokian grabatutakoa. Urko Igartiburu, Mamen Rodrigo, Pedro Fernandez eta Ane Irisarrik osatzen dute Puro Chile. Hainbat artista eta lagun laguntza eduki dute lan honetan.

## diskoa > Vendetta

Skalariak talde nafarrak atsendia hartzea erabaki zuen orain dela ez asko, baina badira taldekide ipurtarinak eta ezin isilik lotu. Hala, *Jabiero* Etxeberria (gitarra eta ahotsa), Luisillo Kalandraka (baxua), Ruben Anton (tronpeta), Pello Reparaz (tronboia) eta Enrike Rubiñosek (bateria) Vendetta taldea sortu zuten. The Selecter taldearen "Everyday", Hertzainak ere egin zion bertsioa (Egunero), eta Jack Marshallen "The munsters" abestien bertsioak egin zituzten lehenengo, eta myspace sarean ipini. Gerora beste 11 kanta sortu dituzte eta danak lehenengo diskoa kaleratu dute. Ska nagusi bada ere, rockari ere egin diote lekua, eta skinhead-reggae, zein latin-core doinuak ere ez dira falta salatzaileen eta aldarrikatzaileen alboan.

[www.myspace.com/vendettanafarroa](http://www.myspace.com/vendettanafarroa)  
[vendettanafarroa.blogspot.com](http://vendettanafarroa.blogspot.com)

## diskoa > Petiri Danbolin

Txirri, Mirri eta Txiribito pailazoen, ETBn saioak eskaintzen hasi zirenetik 25 urte betetzen direla eta, disko barria plazaratu dute: *Petiri Danbolin* (Elkar). Abesti ezagun batzuek osatutako bilduma da diskoa, txistu eta danbolin doinuak oraingo honetan. Hurrengoak dira bilduma osatzen duten kantak: "Baratzeko pikua", "Sagarra", "Idiarena", "Han urrun etxe poxpolo", "Erromako zubia margotzen", "Euskal Herriko mendiak", "Ilargi Amandrea", "Euskaldun makila", "Petiri Danbolin", "Pilotan", "Agur Xiberua" eta "Atzo atzo".

[www.txirrimirrietatxiribito.com](http://www.txirrimirrietatxiribito.com)

etorri  
eta  
ikusii!!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleaz bat)  
Tf. 94 491 23 79  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroango dizugu  
gasoleoa

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure erosketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00

**GORLIZ IRRATIA**  
Urbe Kostako Irratia 107.8 FM  
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

## Lehiaketa prest

**Uribe Kostako ipuin laburren** lehiaketan parte har daiteke **apirilaren 8ra arte**

**Euskararen** erabilera areagotzeko asmoz, euskaldun komunitatea (Getxokoa kasu honetan) sendotzea eta hedatzea helburu duen EGIZU elkarteak (Bizarra Lepoan Euskara Elkarrekin eta Getxoko Euskaltegiak osatzen dutena) bigarren aldiz ipini du martxan eskualde osoari begirako ipuin laburren lehiaketa. Hala, Uribe Kostako ipuin laburren II. lehiaketan Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Plentzia, Urduliz, Gorliz eta Lemoizko herritarrek parte hartu ahaliko dute bakoitzaren adin tarteari dagokion hurrengo kategorietan: A kategoria: LHko 5. eta 6. mailak; B kategoria: DBH 1. eta 2. mailak; C kategoria: DBH 3., 4. eta Batxilegoak; D

«**Lanak euskaraz, argitaratu bakoia, gehienez orrialde bikoia etab. izan behar du**»

kategoria: Euskaltegiak ikasleak; E kategoria: orokorra. Lanak apirilaren 8a baino lehen bidali beharko dira posta elektronikoz ala arruntez (ikus. amaieran), eta parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira: «parte hartzaile bakoitzak narrazio bat aurkeztu ahal izango du. Lanaren gutxieneko luzera folio batekoa (Din A4) izango da eta gehienez bi, alde bakarrean idatzita. Ordenagailuz idatzi behar da eta letraren

liburuak



**Hic Hegel, Hic Saltus**  
X. Insausti / I. Arrieta  
Jakin

Hegel hobeto ezagutzen lagunduko duen liburua idatzi dute Insausti eta Arrietak. Gure garaiko pentsaeragaz harreman handia duen filosofoa da Hegel, nahiz eta oso autore iluna den. Lan honeguz, iluntasun horri argi apur bat emateko ahalegina egin dute autoreek.



**Larrua hotz**  
Albert Sanchez Piñol  
Txalaparta

Independentzia eskuratu barri duen Irlandako errepublika gaztea inarrosi duen guda zibiletik ihesi, irlandar matxino ohia den protagonistak irla galdu batera joko du, hango egurats-ofizial izateko. Bertan, espero ez zituen aurkituko ditu.



Lehiaketaren iragarkia

neurria 12koa izango da. Lanek euskaraz, inon saritu bakoak, jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan beharko dute». Irabazleen barri EGIZUren webgunean jakinaraziko dute apirilaren 20an eta banatuko dituzten sariak hauek dira: A, B, C eta D kategoriak 50 euroko txekoa (Orixa liburudendan euskarazko produktuak erosteko); E kategoriakoak: 1. saria 300 euro, 2. saria 150 euro eta 3. saria 100 euro. ○

**Informazio gehiago:**  
Karitatea 1, sotoa 10. bulegoa Getxo  
egizugetxo@yahoo.com  
www.blogari.net/egizu  
619 935 541

[kirola]

## Berbaldiak Getxon

Hilaren 24an eta 25ean **kirolari eta kirol aditu ezagunek** jardungo dute



Hurrengo "Hartu eta pasa..." entrenamendua hilaren 26an Boluen

«**Gehitu Kirolera!**» egitasmoaren barruan pasadan hil hasieran ekimen barria abiatu zen: «Hartu eta Pasa, entrenamenduetan euskaraz», hain zuzen. Horren bidez, entrenamenduetan euskaraz egitea sustatu gura dute. Horretarako sei entrenamendu tekniko antolatuko zituztela azaldu zuten (gehienez egin dituzte; hurrengo hilaren 26an (19:00), Bolueko futbol zelaietan). Entrenamenduok euskaraz dira, udalerriko hainbat talderi begirakoak eta Koikili Lertxundik (Athleticeko jokalaria) eta Mikel Aramaiok (Athletic Fundazioko entrenatzailea, medikua) gidatzen dituzte.

GEHITU Kirolera! egitasmoa Getxoko Udalak herriko hainbat gizarte eremutan euskararen normalizaziorako martxan duen GEHI, Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena, proiektu zabalaren adarretako bat da. Komunikazio zinetotzi Josu Loroñok azaldu zuenez, «une honetan Getxoko 32 kirol elkarte sinatuta dute hitzarmena eta helburua, era progresiboan, euskarazko kirol eskaintza sustatu eta euskara elkarte lan hizkuntza bilakatzea da». Bada, GEHITU

Kirolera egitasmo barruko «Hartu eta Pasa, entrenamenduetan euskaraz» ekimenari lotuta, orain hitzaldi sorta antolatuko dute.

Berbaldiak Villamonteko Kultur Etxean (Algorta) egingo dira eta sarrera doan izango da. Hala, hilaren 24an (19:30) «Kirolari gazteak: Nola elikatu?» gaiaren inguruan jarduteko Josean Lekue (Athleticeko medikua) eta Irati Anda (eskalatzailea) gonbidatu

«**Josean Lekuek, Irati Andak, Izaskun Azpillagak eta Igor Gabilondok eskainiko dituzte hitzaldiak**»

dituzte. Hurrengo egunean (hilak 25, 19:30), «Eskola-kirola, lehiatzeko edo jolas-teko?» gaia izango dute hizpide Izaskun Azpillagak (Jarduera fisikoan eta Kirol zientzietan lizentziaduna) eta Igor Gabilondok (Athleticeko jokalaria).

Egitasmoaren barruan badira beste asmo batzuk ere, berbarako: jokaldi eta hitz ezagunak euskaraz jasotzen dituzten posterrak edota, gurasoei begira, aupa oihuak jasotzen dituen egutegia argitaratzea. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA  
KIROL moda



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.** SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Esther Zorrozua** > idazlea

“Testu jakin honetan barrenak hustu ditut, onena ematen ahalegindu naiz”



Zorrozua etxeko bulegoan, lanean

**A contra luz** hirugarren nobela argitaratu du Esther Zorrozuak Hiru argitaletxeagaz. Alfonso Sastrek idatzi dio prologoa eta “benetako nobelagile” baten lana dela adierazi du. Bilbon jaio zen, baina Berangon bizi da eta Erandioko institutuko irakasle da, espainiar hizkuntza eta literatura arloan. Klase eta klase artean, ordea, topatzen du idazteko tarterik; nobela, zein artikulua, denetarako denbora dauka.

—Goetheren Faustoren moldaketa da zure azken nobela, *A contra luz*.

—Bai, deabruagaz ituna egitearen moldaketa da, baina laikoa. Gaur metafora da deabruagaz ituntzea, baina egunero bizi dugu guztiok; zerbait lortu gura badugu denok gaude prest zerbait ordaintzeko, onartu edo ez. Metafora da zentzu horretan. Bestalde, publizitatearen munduak uneoro antzetzen du itun hori; oso landuta dagoen semiotika-lengoaiaren bitartez arima eskatzen digu oso birtualak diren errealitateen truke. *Fausto* lanetik abiatu da nobelaren ideia, baina gaur egunera molda-

tuta. Emakume gaztea da protagonista, Nora Bengoa. Nobela bi idatzi ditu, baina ez dizkiote argitaratu. Ez du horrek sufirarazten, ez baitago prest edozein modutan argitaratzeko, baldintza batzuk eskatzen ditu. Lehen kapituluak itun bat egingo du Julian Soralezegaz, Goetheren nobelaren Mefostofiles pertsonaiaren moldaketa. Bide horri jarraitzen dio istorioak.

—Liburua erraz irakurtzen dela eta irakurtzera deitzen duela dio Alfonso Sastrek hitzurrean.

—Entretenigarria izan dadila espero dut. Norbaiti gai horri buruz idatzi duzula esa-

tean, gauza bi gerta litezke. Modan dauden Erdi Aroko kodeei eta enigmei lotuta dagoela uste izatea, baina ez du horregaz zerikusirik, edo oso astuna dela uste izatea. Nire ustez ez bata, ez bestea. Erraz irakurtzen den liburua da, baina tarte sakonak dauzka batzuetan; hausnarketa eragin dezaten saiatu naiz.

—Idazkera argia bertutetzat dauka Sastrek.

—Idazten dugunok, irakurtzea gustuko genukeen moduan egiten dugula uste dut. Beraz, ez dugu idatziko oso testu astuna. Intriga izan dezan eta irakurtzen jarraitzeko

**«Idazten dugunok, irakurtzea gustuko genukeen moduan egiten dugu»**

gogoa piz dezan saiatzen gara. Hori hartu dut kontuan. Alde horretatik, badauka erakargarritasunik.

—Benetako nobelagile esan dizute hitzurrean, nobelagile moduan finkatzea izan da?

—Hori da berak dioena, estimu handian naukalako. Beteko den iragarpena izatea gura nuke. Baina arlo honetan ezin esan daiteke jomugara iritsi naizenik. Une honetan, eta testu jakin honetan, barrenak hustu ditut, onena ematen ahalegindu naiz, baina dena hobe liteke. Ez dut esango jomugara iritsi naizenik, ahoberokeria litzateke.

—Baina eroso zabiltza nobela idazten?

—Bai, nahiko eroso nago; kontakizun laburrak idaztea ere gustuko dut. Baina handiagoa den zerbaitetan pentsatzen eta dena antolatzen hastean ondo pasatzen dut; biak uztartzea dut gogoko.

—Hurrengoan pentsatzen hasita?

—Beste nobela bat daukat idatzita, baina itxarongo dut argitaratu aurretik, batak beste zapalduko luke bestela. ○

**EROSI EUSKARAZ**

aurrealdea

atzealdea

Eskatu zure betiko dendan,  
erosketak idazteko koadernotxoak

... baina euskaraz.

**Euskara Zerbitzua**  
Getxoko Udala | 94 466 00 10  
euskara.zerbitzua@getxo.net  
www.getxo.net



[nire bazter kuttuna]

**Iñaki Muniategi** > Abra bokalea / Zugatzarte

“Abra bokalea, leku zabal handi ederra, kirolerako leku paregabera”



“Goiztiarrak dira hirietako txoriak, argi artifizialen eraginak engainatuak dirudite”

**Ibaizabal** Nerbioi ibaiak erreio bihurturik bere ur gezak gaziturik Kantauri itsasora, Bizkaiko golkoan errenditzen dituen tokia, hau da Abra bokalea, leku zabal handi ederra. Zenbat futbol zelai sar genitzake bertone?

Goizeko bostetan Zugatzarten zehar, zeli zola zohardi denean, han goian artizarra dakusat, zozo eta birigarro kantuak entzunez, zuhaitz zahar tartean- hemen tantarik ez da- Ereagarantz aringaranga noanean, gaztetako goizaldeak datozkit burura, oilaritea falta, hirietan ez da oilarrik. Goiztiarrak dira hirietako txoriak, argi artifizialen eraginak engainatuak dirudite.

Munduan luzaro nahi duenak bizi oiloekin ohera txoriekin jaiki! Bertan Ereagan ilbera denean –tai gabe gora eta behera dabil- ipar haizearen freskotasunean, jo eta ke korrika alde batetik bestera, plaian izerditan blai, dena berea duenarena sentitzen da, bokale guztia norberarentzat, jantzita har dezakegunik atsegin-plazerrik handiena hartzen da, txapeldunarena. Demasa hi! Tumatxa, zer gozamina! Sartu eta urtetan duten barkuak ikusten dira. Hara hemen Pride of Bilbao bere maiestate guztiarekin dator, ikusgarria da bere jeurt egitea. Baina Pride of Bilbao ez al zen Athletic?

Kaioak arturratuarekin batera datoz,

beranduxeago txakur-zainak beren orak hondartzan soltatzten dituzte; txakur batak bestea eta besteak hirugarren bat, elkarri uzkia usaindu ondoren, gaztigatzen du. Ez dio arra ala urrixa den, tai gabe, naturaren naturaltasunaz ari dira, egurrean, elkar estaltzen; bitartean or jabeek hegirantz bideratzen dute soa, tontokilo alaenak! Baina nork irakatsi die txakurrei 69a? Zer jakituna den natura, naturak bakean uzten zaionean badaki bere lana ondo baino hobeto egiten. Beste txakur bat nire hankartera datorkit –noazenadasolokierejugar- txakur jabeak derrait, eta hik nola dakik ez didala ezer egingo, e? Kejuegekontu... o

[norajoan]

## Jan eta jolas

Familia zein lagun batzarrak antolatzeke



Silvia Lopez Saralegi, Jan eta Jolas txokoan

**Zaila egiten zaigu** askotan familia, lagun edo lan biltzar jendetsuak antolatzeke leku aproposa aurkitzea. Are gehiago, umeak eroan gura baditugu. Gabezi horretaz jabetuta, *Jan eta Jolas* zabaltzea erabaki zuen Silvia Lopez Saralegi algortarrak: “Sei anai-arrebetan gazteena naiz. Ume asko dago gurean, eta elkarregaz gustura egoteko lekua gura nuen”. 2007an ipini zuen martxan Malakate enparantza ondoan dagoen txokoa. Erabilera anitzeko alokairu lokala da; intsonorizatuta dago eta 40 lagunentzako lekua dauka. Honez gain, sukaldatzeko edota arratsalde dibertigarri bat izateke behar den guztia aurki daiteke bertan: “Alde batetik, sukaldako tresneria dago: kazolak, platerak, etxetresna elektrikoak... Bestalde, ikusentzunez-

*ko tresnak daude: telebista, DVDa, kate digitalak, karaokea...*”. Etxetik janaria erateke, zein katering ordaintzeko aukera dago. Gurasoak bazkaltzen dauden bitartean, umeek barruan dagoen jolas parkean olga dezakete: “Askotan zaila izaten da umeak eroso egoteko leku bat aurkitzea”. Erabili eta gero, ez dago eztabaidatu beharrik, alokairuaren prezioaren barnean lokalaren garbiketa sartzen baita.

Bazkariak zein afariak antolatzeke leku aproposa izateaz gain, urte osoan zehar sukaldaritza eskolak ematen dituzte *Jan eta Jolas*-en: “Eguaztenero nagusientzako eskolak daude; oporraldietan aldiz, umeentzako ikastaro bereziak egiten ditugu”. o

Puerto de Orduña 18, GETXO  
Tel: 609 671 258. [www.janetajolas.com](http://www.janetajolas.com)



• gozariak  
• txuletoia • makailua  
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

## JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI -  
GETXO

[basalbobaserria@yahoo.com](mailto:basalbobaserria@yahoo.com)

Toponimoa > **Zugatzarte**

**Zugatzarte (Etorbidea):** Zugatzarte egun etorbide ederra bada ere, kaia egin arte Areeta hondartzako aremunez estalitako ingurua besterik ez zen izan. Kaiak aukera eman zuen ingurua txukundu eta zuhaitzez landatzean bataiatzeko, 1938an abereen bazkalekua bazen ere, 1941ean izena aldatu zioten eta Avenida del Triunfo (Garaipenaren etorbidea) jarri, bi urte lehenago izandako garaipena ospatzeko; baina getxoztarrentzat Zugatzarte izaten jarraitu zuen, 1980an udal demokratikoak izen hori berrofizialdu zuen arte. Azkenean 1999an izenak berraztertu eta Zugatzarte jarri zuten osagaiak zugatz ‘zuhaitz’ eta –arte baitira. Barrutia: Areeta (Getxo)

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa



### URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93



### galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**

"Ozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarretak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**Usategi kafetegia**



Usategi parkea z/g,  
Algorta

\*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Kitto! Amaitu da, bertan dira Aste Santuko oporrak. Sekula iritsiko ez ziren beldurrez, ezta? Bada, hartu egizu esku-oihala eta zoaz hondartzara, eguraldi ederra dakarrela iragarri dute eta.

AITZURRA



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Pertsona interesgarria ezagutu zenuen supermerkatuan eta burua galduta zabilta ordutik. Lur hartu, mugitu ipurdi hori eta itzuli merkatura, janaria askotan erosi behar izaten da, eta posible da han barriro ikustea.

GARIA



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Lana, lana... besterik ez daukazu buruan. Lagunek zure premia daukate, afari hura barriro atzeratzea pentsatzen bazabiltza jai daukazu, ez dira-eta denbora lar zure zain loruko.

META



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Maitasuna: ederto gozaten zabilta. Paga: krisia etxean eta zure poltsikoan. Osasuna: eguraldi zoro honek ere ez dizu minik emango. Baina ez zaitetz keka, dena ezin da izan.

OTSOA



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Inauterietako osteagaz zabiltzala oraindino? Aitzakia hori xahutu duzu dagoeneko. Irakaslea konbentzitu gura baduzu, zerbait hobea pentsatu beharko duzu hemendik aurrera.

HOSTOA



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Beste isun bat jarri dizute? Haserre? Normala da, baina hamaika isun daramazu aurten. Okerren bat egiten duzula pentsatu beharko duzu, beti ez du-eta errurik izango aldamenekoak.

LASTOA



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Aurrekoan kulata-juntura, ihes-hodia gero, eta orain, haizagailuaren uhala. Agian auto barria erostea izango duzu onena, prezio ezin hobean aurkituko dituzu gainera, krisiak krisi...

HAZIA



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Parrandaren eta ostearen eraginak nabariak direla? Bada, prestatu beharko duzu eta indarra batu, oporrak datoz eta Andaluzian badago giroa prozesio eta prozesio artean.

ADARRA



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Oraingoak bezalako oporraldietan leku beroagoetara joatea eskatu ohi du gorputzak. Baina eguzkia han egongo da, eta ez hemen. Solarium kolorea lar igartzen zaizu, utzi egizu apur batean...

EGUZKIA



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Dagoeneko bainujantzi bila? Lekutan dago uztaila, bada! Eta Aste Santuan mendia egokitu zaizu aurten, erreketako ura hotz dago, ordea. Hobe zenuke neopreno jantzia bilatu...

IRATZEA




**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Erregimena, kirola, eta topera ikasten, hori duzu kementa! Baina ez da lartxo izango? Gurpilak lar putzen direnean eztanda egiten dute azkenean. Jaitsi egizu erritmoa apur bat.

NEGUA



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Iritsi da udaberria loreak, tximeletak... Eta zure alergia. Arazorik ez, pastillak hartu eta kalera! Ez dago oztoporik negu luzeari aurre egitea lortu baduzu.



**KOSKA**  
irratia 108 FM

[www.koskairratia.com](http://www.koskairratia.com)

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1						■				
2						■				
3						■				
4			■							
5								■	■	■
6	■	■	■							
7							■			
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Ardiaren ar. Erretegi. 2. Ugaztun txiki intsektujale. Bits. 3. Aranondoaren fruitua. Parisko ibaia. 4. Bildu aditzaren oina. Pluralean, janari ongailua. 5. Hil, akatu. 6. Norbaitena. 7. Trakets, zarpail. Hiru, zenbaki erromatarren arabera. 8. Arnas ezak hila. Automata. 9. Garen hauei. Nafarroako herria, Basaburuan 10. Zakotea. Musulmanen liburu sakratu.

Goitik behera

1. Arbasoa. Bi. 2. ... eta... arte, denbora esaldien hasieran indargari gisa ezartzen den esapide. Itsas arrain. 3. Parte, saila. Hegazti mota. 4. Edari alkoholdun. Txango luzea. 5. Lehen aldia. 6. Alkandorak. 7. Debako auzoa. Denak, guztiak. 8. Apaiz. Gipuzkoako hiria, Debarrenan. 9. Bakoitzak bat. Hari, nuena. 10. Moduak. Aitona, hitz elkartzeetan.

Soluzioak

N	A	H	O	K	■	V	O	N	A
O	N	V	A	R	■	I	H	U	G
T	O	B	R	■	V	O	L	I	I
I	I	I	■	R	A	D	A	R	B
A	N	E	■	R	O	N	I	■	■
■	■	■	U	T	V	A	K	A	V
K	A	Z	■	A	G	■	L	B	I
A	R	A	■	N	A	■	A	R	A
A	R	A	■	O	R	■	A	P	A
L	A	B	■	I	■	■	A	H	A

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- 1981. urtean jaio zen Iberon (Nafarroa)
- Buruz buruko txapelduna izan zen 2006an
- Fama handiko pilotaria

> Aurrekoaren erantzuna: Edurne Brouard.  
> Irabazlea: **Begoña Lezamiz Etxebarria (Asua)\***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Argia

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Jolasak eta liburuak

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz



JOSETXU ZUBILLAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ASTRABUDUKO ATXAZPE URKIOLAN, 1957

Urte bat lehenago sortu zen Atxazpe mendi taldea auzoko jaietan, 1956-08-08, San Lorentzo egunean eta hauexek izan ziren lehenengo batzordekideak: Felix Garcia Linares, Marcos Elvira, Juan Mari Agirre, Jose Luis Uriagereka, Jesus Ruiz Mezo, Josetxu Zubillaga, Pedro Elosegi, Karmelo Llantada, Jon Barrondo, Guillermo Mariñelarena, Jesus Bilbao eta Antonio Eskauriaza. Lehenengoz trenez Bilbora; bigarrenaz, barrero trenez Bilboko Atxuritik Durangora, eta azkenez oinez Durangotik Urkiolaraino. Horrela joan ziren eta hor ditugu Urkiolako elizaren aurreko harri famatuaren gainean eta aurrean. Uste da meteorittoa dela harri handi hori eta itzuliak emanez gero, neskek senargaia berehala aurkituko dutela. ○

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Marivi Urkijo, ??, Josetxu Zubillaga, ??, Marcos Elvira, ??, Juan Mari Agirre, Iñaki Uria, ??, ??.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

**IRATI ANDA** > Eskalatzailea

“Ez naiz toki bakarrean egoteko pertsona; momentuak eskatzen dit”

Testua: **Maitane Nerekan**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Burugogorra eta lotsatia.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Son Goku. Txikitako marrazki bizidunetako pertsonaietatik gogokoan dudana da; bere indarra eta hegaz egiteko gaitasuna gustuko ditut.

**Zerk ematen dizu beldurra?**

Gauza ezezagunek, kontrolatzen ez ditudalako.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*La vida es bella* (Roberto Benigni). Protagonistaren positibotasuna eta egoera okerrean buelta emateko gaitasuna baloratzen dut.

**Haurtzaroko oroitzapen bat?**

Igandetan, menditik bueltatutakoan hartutako dutxa beroa, ondoren, sofan pelikula bat ikustearen goxotasuna.

**Animalia izango bazina zein gura zenuke izan?**

Katuak gogoko ditut; baina, animalia bat aukeratu beharko banu, txoriren bat aukeratuko nuke, airetik aske egan egin ahal izateko.

**Gehien gorroto duzun topikoa?**

Topiko guztiak ditut gorroto orokorrean, ez datozelako errealitatearekin bat; baina, batez ere, “esan nizun” esaten didatenean.

**Ohitura txarren bat?**

Oso goiz altxatzea, ez dakit oso ohitura ona den.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Japoniara joango nintzateke. Txapelketa batera joan nintzen eta oso oroitzapen onak ditut; gainera, herria asko gustatu zitzaidan.

**Janari gustukoena?**

Patatak, edonola prestatuta. Orokorrean asko gustatzen zait jatea.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Ez daukat txoko kuttun bat, momentu bakoitzak bat eskatzen dit. Ezingo nuke bat aukeratu; ez naiz toki bakarrean egoteko pertsona. ○

**LABURREAN**— Irati Anda (Gasteiz, 1982) ibilbide oparoa du eskalada munduan. Hamar urte baino gehiago daromatza hormetan gora egiten. Denbora horretan, hainbat txapelketatan hartu du parte Euskal Herrian, zein munduan zehar. Espainiako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu behin baino gehiagotan. Haitzetan eskalatzea nahiago duen arren, garrantzitsua iruditzen zaio eskalada-muruetan trebatzea, abilezia hartzeko; horretarako, besteak beste, Europan zehar ibiltzen da. Bertsolaritza eta idazketa ere gogoko ditu; horren adierazle, bere web gunean ([www.iratianda.com](http://www.iratianda.com)) aurki daitezkeen testu ederrak. Martxoaren 24an Algortako Kultur Etxean izango da kirola eta elikadurari buruzko hitzaldia ematen.

eskerrik  
asko

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)

< ezkerreko **alternatiba** abertzalea  aralar

# Getxoko leku izenak

ezagutu, ikasi



## Ibilbide Toponimikoak 2009

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek?  
Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 9 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	1800	Santa Ana-Romo-Neguri-Abasa	1,6 Km
Martxoak 27	1800	Bokua-Neguri-Ereaga	1,4 Km
Apirilak 1	1900	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharran hasita	1 Km
Apirilak 7	1900	Bokua-Santa Koloma-Bokua-Abasa	2 Km
Apirilak 21	1900	Telatar-Ereaga-Antiganaga-Azarmota-Bidzabal	3 Km
Apirilak 30	1900	Bidzabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 5	1900	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharran hasita	1 Km
Maiatzak 13	1900	Santa Ana-Romo-Neguri-Abasa	1,6 Km
Maiatzak 21	1900	Andra Mari-Sabukune-Olla-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 29	1900	Andra Mari-Olla-Galea-Andra Mari	5,7 Km
Ekainak 1	1900	Bikala-Zabala-Zapatarte-Ereaga-Ignitea	4,1 Km
Ekainak 9	1900	Bokua-Neguri-Ereaga	1,4 Km
Ekainak 17	1900	Telatar-Ereaga-Antiganaga-Azarmota-Bidzabal	3 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira



Eskatu informazioa Udal Turismo  
Bulegoan edo deitu 688 635 350.  
Izena eman behar da telefono  
onetan: 688 635 350

